


hh  
hik hasi

**Aines Dufauri elkarrizketa**  
**Ikasle zaurgarrientzat, neurriko erantzuna**  
**Iraunkortasunerako hezkuntza**  
**Hezkuntza Lege proiektua Legebiltzarrean**  
**Zer da optometria eta nola lagun dezake?**  
**Gure Sustraiak baserri eskola**  
**Jone Barruetabeña Barreña**



LH HOBETZEKO GAKOAK

# #traola

Gazte bilduma



## ASEL LUZARRAGAREN TRILOGIA



BERRIA



elkar

[www.elkargitalexka.eu](http://www.elkargitalexka.eu)

# AURKIBIDEA

GAIA / 8

## LH HOBETZEKO GAKOAK

Lehen Hezkuntzan eraldaketa prozesua egiteko marko teoriko eta metodologiko bat proposatu zuten *Hobetzeko prest!* jardunaldian Caieveko Jordi Mateuk, Huheziko Karmele Perez Lizarralde eta San Fermin ikastolako Edurne Apalauza, Ainhoa Iribarren eta Julen Zamorano irakasleek.

ELKARRIZKETA / 14

## AINES DUFAU

Familia euskaldun batekoa izan arren, eskolaren eraginez, haurtzaroan frantses hiztuna zen Aines Dufau. Gaztaroan hartu zuen euskalduntzeko konpromisoa, eta geroztik Ikas euskal pedagogia zerbitzuan dihardu. Hango zuzendari kargutik eta ikuspegitik mintzatzen da Iparraldeko hizkuntza politikaz eta euskararen egoeraz.

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguilera eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943 37 14 08 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Ainhoa Azpirotz, Ainara Gorostitzu, Olatz Lasagabaster.

Erredakzio batzordea: Mikel Agirrezabala, Kontxi Aizarna, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

Aholkulariak: Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe

Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx eta Xabier Tapia.

Administrazioa: Uxue Ugartemendia.

Azaleko argazkia: Hik Hasi

Diseinua: Grafik.

Maketazioa: Xangorin.

Inprimategia: ANtza S.A.L

Hezkuntza Sailak onetsia (2023-4-5).

Kopurua: 3.400 ale.

Hik Hasiko edukiak baliatu eta zabaldu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta soilik baldintza beretan eginez gero. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiek.

5 EDITORIALA

Bestearen lan ona aitortzearen alde

8 GAI NAGUSIA

LH-ko eraldaketarako gakoak

16 ELKARRIZKETA

AINES DUFAU

"Iduri du Frantzia mendratuak dituen herrien beldur dela"

22 ESPERIENTZIAK

Ikasle zaurgarrientzat, neurriko erantzuna

26 EKARPENAK I

'EmariApp', erreferentzia diren emakumeen izenak asmatzeko joko berria

28 EKARPENAK II

Iraunkortasunerako hezkuntza ala basakeria

32 EKARPENAK III

Jaurlearitzako Gobernu Kontseiluak Hezkuntza Lege proiektua onartu du eta Legebiltzarrean da

34 AHALDUNTZE ESKOLA

Arriskuak saihesteko giltza

36 GALDEIDAZU

Zer da optometria eta nola lagundu dezake eskolan?

39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA

Gure Sustriak baserri eskola

42 ATZEKO ATETIK

Jone Barrietabeña Barreña

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA SAILA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HEZKUNTZA POLITIKA SAILA

Hezkuntza Sailak eta Kultura eta Hezkuntza Politika Sailak (Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



zerbitzua eta lana cuskaraz

Ikusgarritasuna



# Bestearen lan ona aitortzearen alde

## editoriala

GERTUKO BETAURREKOAK JANTZITA NORK BERE ONURA BILATZEN DU. URRUTIKO BETAURREKOEKIN BESTEEN ONURA ERE BAI, ETA HORTAZ, DENENA. HEZKUNTZA LEGEAREKIN HORI FALTA OTE DEN DA GALDERA.



**F**okua non jartzen den edo begirada nolakoa den, horren baitan ematen dira iritziak eta egiten dira kritikak, aldekoak zein kontrakoak. Fokua gertukoa edo hurbila izan daiteke; edo luzeagoa, zabalagoa. Alegia, gertuko edo urrutiko betaurrekoak jantzen diren.

Eusko Legebiltzarrera iritsi berri da Hezkuntza Lege proiektua, EAJ, EH Bildu, PSE eta Elkarrekin-Podemos alderdi politikoen artean Hezkuntza Akordioa egin zenetik urtebetera. Denbora tarte horretan hezkuntza komunikabideetako lerroburuetara etorri da eta Hezkuntza Akordioaren eta orain arteko zirriborroen artean aipagai izan dira euskara eta ikas-irakaskuntza ereduak, segregazioa, doakotasuna, titularitate desberdinen arteko berdintasunak eta desberdintasunak, udalen parte-hartzea eta abar.

Normala eta bidezkoa da alderdi politiko, hezkuntza eragile, ikastetxe edo sare bakoitzak beretzat onena nahi izatea eta kritikak, emendakinak eta proposamenak ildo horretan egitea. Hezkuntza jarduna hobetzeko helburua denen buruan egongo da, segur aski.

Halere, gauza bat da nork berea hobetzea eta beste gauza bat da denona hobetzea.

Jauzi bat dago batetik bestera, gertuko betaurrekoak erantzi eta urrunekoak jantzea dakarrena. Eta hori eginda edo egiteke dagoen da galdera. Euskal Herriko hezkuntza sistema osoa hobetzearen alde elkar hartzea ez ote den falta, alegia. EH Bilduko programa arduradun Pello Otxandianok lege proiektuaren lehen balorazioa egiterakoan adierazi du “hezkuntzaren eraikuntzan jauzi bat egiteko aukera historiko baten aurrean” gaudela, “hezkuntzagintzaren fase berri bat irekitzeko”. Eta jauzi hori, “hezkuntza tradizio bakoitzaren onena jasoz” egin daitekeela aipatu du. “Labur esanda, ikastolen gaitasun autoeratzaileria eta eskola publikoaren sen berdinzalea uztartuz”. Etxe berean pertsona bat baino gehiago elkarrekin bizitzen jartzen direnean gertatzen den moduan, bakoitzak bere egiteko erak ditu, baina sinergiak eta denen esperientziak probestuz asko ikasten da, denak ateratzen dira onuradun, askoz ere aberatsagoa da elkarbizitza, eta bizitza bera.

Sarritan azaleratu dira ikuspegi desberdinak, askotarikoak, eta baita kontrajarriak ere; gutxiegi ikusarazi dira adostasunak eta antzeko iritziak. Zeren, helburu batzuetan ados gaudete, ezta? Jar dezagun azpimarra ados gauden helburuetan edo hitz egin dezagun horietaz ere, markatzen goazen bidean norabidea gal ez dezagun.

**“25 urteko epean iritsi beharko ginatke euskararen ulermen unibertuala ziurtatzera gutxienez euskal herritar guztien artean”**

Pello Jauregi

# HILEKO IRUDIA





## HIZKUNTZA POLITIKA BERRIA ALDARRIKATU DUTE BAIONAN

Ehunka lagun batu ziren apirilaren 22an Baionan egin zen manifestazioan *Orain baxoa euskaraz! Euskarak bizi behar du!* ozen aldarrikatuz. Ipar Euskal Herrirako benetako hizkuntza politika berria eta ausarta eskatu diete Frantziako Gobernuari, Akitania Berria eskualdeari, Pirinio Atlantikoetako departamenduari eta Euskal Hirigune Elkargoari; hau da, EEP Euskararen Erakunde Publikoa osatzen duten lau instituzioei. Euskaingintzaren mezua argia da: euskarak bizi behar du eta horretarako Euskararen Hitzarmen berri bat lortu behar da, zinezko inbertsioarekin, eskumen gehiagorekin eta garai berrietara egokitua.

Hizkuntza politika eraginkorra izan dadin, euskaldunon hizkuntza eskubideak errespetatuko dituen esparru berria behar dela aldarrikatu zuten Baionan, eta eskubide horien barnean sartzen da ikasleek baxoko azterketak euskaraz egiteko duten eskubidea, ikasketa guztiak euskaraz egin arren baxoko frogak frantsesez egin behar izaten baitituzte.

**Argazkia: Hik Hasi**

Baionan, 2023ko apirilaren 22an



Badator eraldaketa pedagogikoa Lehen Hezkuntzara. Ikastetxe batzuk dagoeneko murgilduta daude berrikuntzan, beste batzuk sartu berriak dira eraldaketaren gorpilera, eta beste batzuk, nahi ala ez, sartu beharko dira, eraldaketa ezinbestean datorrelako. Lehen Hezkuntzako berrikuntza pedagogikoa gauzatzeko gako batzuk jarri zituen mahai gainean **Hik Hasik** iragan apirilaren 22an, EHUren Donostiako campuseko HEFA I-en egin zuen 'Hobetzeko prest!' jardunaldian. Kataluniako esperientziatik hainbat gako ekarri zituen Caiev Eskola Biziaren Ikerketa eta Bidelaguntza Zentroko Jordi Mateu Zorita irakasle eta formatzaileak. Huhezitik praktika gogoetatsuaren berri eman zuen Miker ikerketa taldeko Karmele Perez Lizarralde irakasleak, eta praktika gogoetatsuaren bidez egindako eraldaketaren esperientzia aurkeztu zuten Iruñerriko San Fermin ikastolako Eburne Apalauza, Ainhoa Iribarren eta Julen Zamorano irakasleek.

# GAIA: LH-KO ERALDAKETARAKO GAKOAK

‘Hobetzeko prest!’ jardunaldia

**E**raldaketa pedagogikoa prozesu bat da. Katalunian urteak daramatzate hezkuntza berrikuntzako prozesuan eta Jordi Mateu hezitzaile eta formatzailea ikastetxe berritzaile askoren bidelagun izan da eraldaketa prozesuetan. Caiev Eskola Biziaren Ikerketa eta Bidelaguntza Zentroa gidatzen du eta Kataluniako esperientziatik Lehen Hezkuntzan eraldaketa prozesu bat egiteko hainbat gako eman zituen *Hobetzeko Prest!* jardunaldian. Bezperan Otxandioko eskolan izan zen Joxe Mari Auzmendi bekaren baitan bidelaguntza eskaintzen. “Azken urteetan hezkuntza berrikuntza prozesua bizi izan dugu Katalunian. 2000. urtean hasi ziren hainbat ikastetxe eraldaketarantz mugitzen. Haurrekin zerbait ezberdina egiteko gogoia zuten ikastetxeak ziren, sistemaren bazterretan zeuden ikastetxeak. Universitat Oberta de Catalunaren bidez, *Escola Nova 21* izeneko mugimendua sortu zuten [500 ikastetxe batu zitzaizkion mugimenduari], eta azken urteetan egin ziren lanak, eraldaketari begirako formazioak eta bidelaguntza batu zituzten”. Mateuk adierazi zuenez, eraldaketa prozesu horrek hiru eremutan eragin du batez ere Katalunian:

“Batetik, material pedagogikoetan; bigarrenik, proiektu pedagogikoetan eta lanaren planifikazioan, antolakuntza eta egitura pedagogikoak birpentsatzea eragin baitu, eta, hirugarrenik, espazioen erabileran eta ezaugarrietan, hala nola, espazioaren banaketan, estetikan, altzarrietan...”.

Katalunian bizi izan duten berrikuntza pedagogikoak, batez ere, egitura pedagogikoen antolaketan eragin duenez, Mateuren ikuspuntutik, sakoneko eraldaketa baino gehiago, azaleko berrikuntza izan da. “Ez diet garrantzirik kentzen *azaleko* deituta, baina uste dut ez diela galdera konplexuagoei erantzuten, hala nola, *zein da hezkuntzaren helburua?* galderari. Zer ari gara bilatzen? Zer da hezteak? Nola kokatzen gara haurrekin? Zein da familien rola? Zer-nolakoak dira kalitatezko harremanak? Galdera sakon horiei erantzun behar zaiela uste dut. Aldiz, honako galdera hauei erantzun die [Kataluniako prozesuak]: nola egingo dugu ezberdin? Nola antolatuko dugu gela? Nola egingo dugu zerbait errespetuzkoagoa? Baina giza harremanak ez dira aldatu”.

# GAIA: LH-KO ERALDAKETARAKO GAKOAK

'HOBETZEKO PREST!' JARDUNALDIA



Jordi Mateu Zoritak Ca L'aulet ikastetxea gidatzen du Bartzelonan, eta formazioa eta bidelaguntza eskaintzen du Caiev zentroaren bitartez.

Mateuren aburuz, oinarritik ekin behar zaio eraldaketari prozesu bat abiatzeko, eta horretarako, sakoneko galdera egin zion bere buruari formatzaileak: zein da hezkuntzaren helburua? Ikastetxeei berrikuntza pedagogikoan bidelaguntza eman dienean, galdera horri erantzutean hiru kolektibo handi bereizten direla ikusi du:

**- Hezkuntzaren helburua integrazio soziala dela irizten diotenen kolektiboa:** “Hezkuntzaren helburua haurrak sistema kapitalista honetako lan mundura txertatzeko prestatzea dela pentsatzen duen kolektiboa da. Talde honen barruan bi azpitalde daude: batetik, eszentziarako eskolak sortu behar direla pentsatzen dutenen kolektiboa, hezkuntza akademizista oinarri duena. Eta, bestetik, lan munduan txertatzeko prestakuntza hori ikasketa aktiboaren bidez egin nahi dutenak. Hezkuntza gisa horretan ulertzen dutenen taldea da handiena eta hegemonikoa”.

**- Helburua eraldaketa soziala dela uste dutenak:** “Gizarte despareko eta injustu batean bizi garela eta eraldaketa prozesu bat beharrezkoa dela irizten diote eta uste dute eskolak eta hezkuntzak rol garrantzitsua daukatela eraldaketa horretan”.

**- Hezkuntzaren helburua garapen pertsonala dela irizten diotenen kolektiboa:** “Hirugarren kolektiboan uste dugu hezkuntzaren lehen helburua bizitza prozesuei bidelaguntza eskaintzea dela, gizakiok gizaki helduago, bizitzarekin konektatuago eta giza hazkuntza prozesuarekin sintonian gara gaitezen”.

Norbanako bakoitzak zeren arabera hautatzen du hezkuntzari helburu bat ala bestea esleitzea? Mateuk dio bakoitzaren ideologiari, bizi esperientziari, izaerari, interesei eta elementu subjektiboari buruz hausnartzea beharrezkoa dela hezkuntzaren helburuaren atzean dauden sinesmenak eta balioak ulertzeko. Baina are sakonagoko galderak ere egin zituen: “Zer da bizitza? Zein da bizitzaren helburua? Zein da errealitatearen esentzia? Zein da giza kontzientziaren esentzia? Nola gertatzen dira gizarte eraldaketako prozesuak? Galdera horiek oinarritzakoak dira, eta geure buruari egiten ez badizkiogu, gainerako guztia erlatiboa izango da, ez baitauka abiapunturik”. Mateuk, Biologia eta Filosofia eskutik hartuta, bizitzaren helburua bizitzea dela dio: “Organismo baten helburua bizirautea da. Eta bizirauteko hazi, garatu eta bere barne potentzial guztia zabaldu

“Ikastea barrutik kanpora/kanpotik barrura erlazioen arabera gertatzen da beti: kanpotik datorren estimulu nola eragiten dio nik aurrez barruan dudanari?”

Jordi Mateu hezitzailea eta berrikuntza pedagogikoko formatzailea Caieven

## GAIA: LH-KO ERALDAKETARAKO GAKOAK

behar du. Geure potentziala —potenzial emozionala, erlazionala, espirituala eta kognitiboa— garatzea da bizitzaren helburua”.

Eskolak haurrei zer eskaini behar dien pentsatzeko eta prestatzeko, galdera horiei erantzun ostean, honakoa itauntzen du Mateuk: Zer da ikaskuntza? “Biologiaren arabera, baldintza neuronalak dira; estimulu berriak aurrez daukagun horrekiko harremanetan jartzean garatzen da ikaskuntza. Ikastea barrutik kanpora/kanpotik barrura erlazioen arabera gertatzen da beti: kanpotik datorren estimulu/informazioak nola eragiten dio nik aurrez barruan dudanari? Hori ulertu nuenean ulertu nuen eskolak ez duela izan behar ez gidatua ezta ez-gidatua ere”. Begirada horretatik ikasteko modu asko daudela adierazi zuen:

- Asimilatuz edo geure eginez ikasten dugu.
- Imitazioz: behatu eta errepikatuz, hau da, kopiatuz asko ikasten da eta ez da ikaskuntza pobrea.
- Esperimentazioz eta praktikaren arabera.
- Norbaitek irakasten digulako ikasten dugu.
- Elkarrizketaren bidez.
- Proiektuak egitean, egituraketa mentalaren bidez.
- Auto-behaketaren bidez.
- Kalitatezko harremanetatik ikasten dugu, plazera eta eraikuntza kolektiboa eskaintzen dizkigutelako.

## Eskolaren lau helburuak

Galdera guztiak ordenatuta, berriro planteatu zuen hizlariak, zein da hezkuntzaren helburua? Jordi Mateuren arabera, eskolak lau helburu ditu, eta helburu guztiak zaindu eta orekatu behar dira eskainiko ditugun proposamenetan eta egitura pedagogikoetan:

- 1. Haurrei bizitzen ikasten laguntzea.** Komunikatzen ikastea, entzuten ikastea, taldean norbere lekua aurkitzen ikastea, hautematea, adierazten ikastea, emozioak sentitzen ikastea, erregulatzen ikastea, emozioak modu egokian adierazten ikastea, gatazkan bizitzen ikastea...
- 2. Munduari ateak irekitzea.** “Munduaren zatiak eskolara ekarrita lortzen da bigarren helburua: matematikak, historia, yoga, antzerkia, aroztegia...

eta baita haurrak mundura eramanda edo eskolan espazio bereziak eraikita ere, hala nola, aroztegi bat, joko sinbolikorako txoko bat... Kanpotik barrurako ikasketa esperientziak dira horiek, heldua baita proposamenak egituratzen dituenak”.

- 3. Haurraren barne beharrei erantzutea.** “Barrutik kanporako mugimenduari laguntzeko gune gisa ulertzen dut eskola, haurrak gara ditzan eta konektatadin bere interesekin, beharrekin eta nahiekin. Euren beharrekin eta nahiekin konektatuta daudenak izango dira gizaki sanoak; bere barruan sentitzen duen beharra asetzeko momentua den ala ez kudeatzeko gai den pertsona hori izango da pertsona osasuntsua, ez bere barnearekin deskonektatua dagoena. Beraz, barrutik kanporako mugimendu horri leku egin behar dio eskolak”.
- 4. Haurrek kulturaren kodeak ikastea.** “Gure gizartean harreman sozialak garatzeko beharrezko diren oinarriko konpetentzia akademikoak euren-ganatzeko aukera eman behar die eskolak haurrei. Gaitasun linguistikoak garatzen lagundu behar du, adibidez; irakurketa-idazketa oinarrikoa da”.

## Egitura pedagogikoak, eskolaren helburuen arabera

Hezkuntza eraldatzeko, beraz, galdera asko egin behar ditu irakasle taldeak, Mateuren aburuz. Eta egingo diren aldaketa txikiek eta eraldaketa handiek, hartara, oinarri sendoa izango dute. Abstraktutik konkretura, teoritik praktikara, ikastetxeetako egitura pedagogikoek behar esentzialei eta hezkuntzaren helburuei nola erantzuten dien galdekatu zuen ondoren. “Ikastetxetara noanean, antzeko gauzak adierazteko hitz asko erabiltzen ditugula ikusten dut: espazioak, txokoak, gelako ehuna, prozesuak, proiektuak, proiektuetan oinarritutako ikaskuntza, interes-guneak, borobilak, tailerrak... Egitura pedagogiko horiek zer-nolako ikaskuntza-esperientziak eskaintzen dituzten aztertzea komenigarria da, barrutik kanpora edo kanpotik barrurako ikaskuntza eskaintzen duten aztertzea, oreka bila dezagun. Egitura pedagogiko bakoitzean helduaren rola zein den hausnartu behar dugu, nolako taldekatzeak egiten ditugun eta taldeka-

“Egitura pedagogikoek zer-nolako ikaskuntza-esperientziak eskaintzen dituzten aztertzea komenigarria da, oreka bila dezagun”

Jordi Mateu hezitzailea eta berrikuntza pedagogikoko formatzailea Caieven

## GAIA: LH-KO ERALDAKETARAKO GAKOAK

'HOBETZEKO PREST!' JARDUNALDIA

tze horiek haur guztiekin eta bakoitzarekin kalitatezko harremanak izateko zer aukera eskaintzen duten hausnar dezagun...". Egiturak ez dira helburu, Mateuren arabera, "baizik eta eskolaren helburuetara iristeko tresna". Zirkulazio librea jarri zuen horren adibide: "Tailerraren helburua haurrak esperientzia berrietara irekitzea baldin bada (2. helburua), zirkulazio libreko guneen helburua barrutik kanporako mugimenduak garatzea da, hau da, haurraren autoerrealizazioa, autonomia eta autoerregulazioa garatzen laguntzea. Baina kontuan izan behar dugu zirkulazio libreko guneetan haurren arreta fokatizua egotea eta kalitatezko ikaskuntza gertatzea oso konplexua dela; ikaskuntza sentsorio-motrizia, erlazionala eta sinbolikoa nahiko erraz garatzen da zirkulazio librearen bidez guneetan, baina konplexutasunezko ikaskuntzak egitea ez da erraza Lehen Hezkuntzan. Konplexutasun hori ongi ulertzea beharrezkoa da kaosean eror ez gaitezen. Zirkulazio librea ez da helburua, ez da helburua haurrak gune ugarietatik libreki zirkulatzen ibiltzea. Egitura pedagogikoak ez dira helburu, bidelaguntza egokia lortzeko tresnak baizik. Egitura batzuk ala besteak erabiliko ditugu taldearen eta ekipo pedagogikoaren arabera, baina garrantzitsua da argi izatea zer lortu nahi dugun". Gisako hausnarketak buruan, egitura pedagogiko bakoitza eskolako lau helburuekin lotzeko ariketa egin zuen Mateuk:

- Borobila: "Bizitzen ikastearen helburua lortzeko egitura pedagogiko paradigmaticoa da, entzuketari eta adierazpenari laguntzen dio, eta nola sentitzen garen ulertzen laguntzen du".
- Guneak eta zirkulazio libreko guneak: "Autoerrealizazioaren helburuari erantzuten dio egitura pedagogiko horrek".
- Tailerrek edo zuzendutako proiektu bidezko ikasketek esperientzia berriei atea irekitzeko helburuari erantzuten diote.
- Kultur kodeak eurenganatzeko helburuari erantzuten diote konpetentzia praktikoak lantzeko tailerrek. "Batez ere proposamen dibertsifikatuekin proposatzen direnean, tailerrek egitura pedagogiko egokia izan daitezke konpetentzia akademiko estrategikoak eurenganatzeko, hala nola, irakurketa-idazketarekin eta matematikarekin zerikusia dutenak".

### Eraldaketa: lauzpabost urteko prozesua

Hasieran planteatutako oinarritzko galderei erantzunez eta egitura pedagogikoak aztertuz has liteke Lehen Hezkuntzako eraldaketa pedagogikoa, Mateuren aburuz. Prozesu bat izango dela nabarmentzen du, urtetako prozesu bat: "Lauzpabost urteko eraldaketa prozesuaren bidez, nola irits gaitezke kanpo-barruaren arteko oreka duen eskola eredu batera? Nola lor dezakegu haurrek zer eta nola egiten duten erabakitzeo aukera dugun eskola? Eduki estrategikoak eurenganatzeko denborak ezarriak dituen eskola, aukera berriei atea zabalduko dizkiena eta taldeko denborak ere eskainiko dizkiena? Nola iritsi momentu horretara? Nola lortu guneetan ekintza autonomoa egotea, tailerrek edo proiektu zuzenduak egotea, borobilerako denborak egotea...? Prozesu bat egin behar da horraino iristeko. Prozesu horretan, lehendabiziko urtean, adibidez, tailerrek landu ditzakegu: nola egiten ditugu tailerrek? Beha dezagun zer den haurrentzat esentziala tailer horietan eta ea gure eskaintzak asetzen duen euren beharra... eta hurrengo urtean beste egitura pedagogiko bat birpentsatuko dugu".

Kataluniako esperientziara itzulita, eraldaketa prozesuak oso konplexuak direla azpimarratu zuen. "Itsasontzi bat zaharberitu nahi dugunean, itsasotik atera, tailer batera sartu eta lan egiten dugu. Itsasontziak aurrera jarraitzen duen bitartean egin nahi izaten dira eskolatan eraldaketa prozesuak. Nora goazen erabaki behar dugu; irakasle guztiak ontzian ote doazen behatu behar da". Mateuk argi utzi zuen eraldaketa ez dela erraza, "ezin gara gauetik goizera tailerretatik zirkulazio librerara pasa, umeak bidean galdu gabe". Era berean, eraldaketa prozesuak oso baldintzatuak daudela nabarmendu zuen: "Aldaketak tentsioa ekarriko du, hasteko aldatu nahi ez duten irakasleengan, batzuk gustura daudelako egiten dutenarekin; eta beste batzuk beldurra eta ezjakintasuna dutelako. Tentsioa eragingo die aldatu nahi bai, baina nola aldatu ez dakitenei ere. Horrek guztiak energia asko eskatzen du eta beharrezkoa da talde-lana, antolakuntza ona eta bidelaguntza eskainiko duen esperientzia, bestela oso mingarriak izan daitezke prozesuak".

"Aldaketak tentsioa ekarriko du; aldatu nahi ez dutenei eta baita aldatu nahi bai baina nola aldatu ez dakitenei ere. Talde-lana, antolakuntza ona eta bidelaguntza behar dira"

Jordi Mateu hezitzailea eta berrikuntza pedagogikoko formatzailea Caieven

## Praktikaz gogoeta egin, praktika hobetzeko

Huheziko Miker ikerketa taldeko Karmele Perez Lizarralde irakaslearen praktika gogoetatsuaren eredua aurkeztu zuen, eraldaketa egiteko metodologia gisa. Teoriaren analisi partekatua eta gelako praktikaren autokonfrontazioa uztarten ditu ereduak.

Lehen Hezkuntzako eraldaketak —beste edozein hobekuntza prozesuk bezala— metodologia behar du prozesua garatzeko. **Hik Hasik** eraldaketarako oinarriak eskaini asmoz, Huheziko Miker ikertaldeko Karmele Perez Lizarralde irakaslea gonbidatu zuen praktika gogoetatsuaren metodologiaren berri emateko. Hizkuntzaren didaktikaren alorrean garatu du hobekuntzarako eredua Mikerrek.

Prestakuntza gogoetatsuaren muinean Schön autorearen 1983ko *Praktikari gogoetatsua* liburua dago. Irakaslea bere praktikaz eta ekintzaz gogoetan jartzea proposatu zuen Schönek, “praktikaren aurretik, praktikan eta praktikaren ondoren gogoeta egitea”. Schönek marko teorikoa ezarri bazuen ere, Perez Lizarralde adierazi zuen ez zuela “pistarik” eman gogoeta hori egiteko, eta hain zuzen ere Tardif izan zen 2012an gogoeta hori nola egin “pistak” eman zituena. Tardifen hainbat gogoeta ekarri zituen irakasleak: “Gogoeta esperientzia soziala da, ez jarrera indibiduala; kritikoa izatea norbere sinesmenak sistematikoki aztertzeke eta segurtasunak, aurreiritziak eta interesak zalantzan jartzeko gai izatea da”.

Irakaslearen praktika hobetzeko prozesuak proposatzen ditu Miker taldeak Schön, Tardif eta beste hainbat autoreen lanak bilduz: “Oso modu kokatuan, gela bakoitzean eta eskola bakoitzean eraiki behar den prozesu bat da. Irakasleari berari aitortzen diogu ezagutza; inor baldin bada aditua, bera da. Praktika gogoetatsuaren helburua ez da ebaluatzea, baizik eta ulertzea zer ari den gertatzen, eta lanbidearen kontzientzia eta garapena sustatzea. Kontua da zer egiten duen irakasleak gela horretan, nola eta zergatik. Zein dira baldintzatzaileak hori horrela gerta dadin? Goazen elkarrekin ulertzeraz eta hobetzeraz”.



Huheziko Karmele Perez Lizarralde **Hik Hasiko** Mikel Agirrezabalarekin.

Praktikaren analisisa (bideoz grabatu eta berau banaka eta taldean autokonfrontatuz) eta teoriaren analisi partekatua uztartzen dituen prozesua proposatzen du Mikerrek irakaslearen praktika hobetzeko. Horrek, hobekuntzaren abiapuntuan ezarri duten gaia (Mikerren kasuan hizkuntza didaktikari lotua) hobetzeaz gain, praktika orokorra hobetzea ekarriko du. Norbere eta irakasle taldearen praktika aztertu, ulertu eta hobetzeko modu indibidual eta kolektiboak bilatzen baitituzte: “Modu dialogikoan aritu behar dira, talde-lanean. Praktikaren eta teoriaren arteko solaskidetza behar da”. Huhezikoek gidaritza eskaini ohi dute prozesuan, erraztaileak izango dira, baina prozesua ikastetxeak egiten du: “Konturatu naiz’ horretara iristen lagundu behar diegu irakasleei. Eta hortik, irakaslea eta eskola izango dira beren errealitatea eraldatzeko gai izango direnak”.

“Praktika gogoetatsuaren helburua ez da ebaluatzea, baizik eta ulertzea zer ari den gertatzen. Kontua da zer egiten duen irakasleak gela horretan, nola eta zergatik”  
Karmele Perez Lizarralde, Huheziko Miker ikerketa taldeko irakaslea eta ikerlaria

## GAIA: LH-KO ERALDAKETAREN GAKOAK

'HOBETZEKO PREST!' JARDUNALDIA

### “Prozesua korapiloz beteriko ibilbide aberatsa izan da”

Iruñerriko San Fermin ikastolak berrikuntza prozesua egin du praktika gogoetatsuaren bidez, LH-ko ikasleen euskararen erabileratik eta ahozko gaitasunetik abiatuta.

Euskararen erabilera eta bereziki ikasleek ahozkoan zuten gaitasuna izan du hobekuntza prozesuaren abiapuntu San Fermin ikastolak, eta, horretarako, Huheziko Miker ikerketa taldearen gidaritzapean, praktika gogoetatsuaren metodologia baliatu dute. Edurne Apalauza berrikuntza pedagogikoko arduradunak (berrikuntza prozesua egin zutenean ikastolako zuzendari zenak) eta Ainhoa Iribarren eta Julen Zamorano irakasleek aurkeztu zuten euren prozesua. “Prozesua ez da ibilbide lineal bat izan, korapiloz beteriko ibilbide aberatsa izan da”, laburbildu zuen Apalauzak. “Orain gure bide orria marrazteko gaitasuna eskuratzen ari gara”.

2019-2020 ikasturtean hasi zuen *Eragiten* prozesua San Fermin ikastolak. “Teoriarekin hasi ginen. Elkarrekin-tza didaktikoan jarri genuen ikasleen hizkuntza gaitasunetan eragiteko fokua”. Berau aztertzeke, praktika gogoetatsua nola baliatu ikasi dute. “Irakasleak egunerokoak egiten hasi ziren, egiten dugunaren argazki bat edukitzeke. Ondoren, hustuketa egin eta ondorioak atera genituen; itzulpen horretan lortu genuen irakasleen kontzientzia pizten hastea”. Irakasleen saioak grabatzea izan zen hurrengo urratsa eta horiek elkarrekin ikusiz, autokonfrontazioaren bidez, saioak aztertu zituzten binaka edo taldean eta hobetzeko gakoak atera zituzten. “Helburua ez da gaizki edo ongi dagoen epaitzea, gertatu zena ikustea eta hobetzeko gakoak ateratzea baizik”. Autokonfrontazioa eta tertulia dialogikoak izan dira ibilbidea egiten lagundu dieten teknikak, jarraian ikastetxe mailako dekalogo bat sortzeko.

Ispilu ariketa da praktika gogoetatsua, Apalauzaren aburuz: “Garrantzitsua da praktika gogoetatsuaren fase guz-



Julen Zamorano, Edurne Apalauza eta Ainhoa Iribarren irakasleek oso lagungarritzat jo zuten praktika gogoetatsuaren bidez eginiko ibilbidea.

tiak egitea; irakasleen formaziorako gakoak da; eraldaketa pertsonala beharrezkoa da benetako eraldaketarako”.


Iribarrenek praktika gogoetatsuan parte hartu zuen, bere lanaren grabazioa autokonfrontatuz, eta esperientzia emankorra izan zela azaldu zuen: “Lagungarria izan zen. Kolektiboan egin genuen autokonfrontazioa, eta horretarako, taldea kohesionatuta eta giroa konfiantzazkoa izatea garrantzitsua da. Asko lagundu zidaten besteen ekarpenek; ez da Ainhoa irakaslea epaitzen, ikasleen parte-hartzea eta gauza asko balioesten dira”. Zamorano-entzat ere makulu garrantzitsua izan da praktikaren gainean gogoeta egitea: “Aurrez teoria irakurrita geneukan, baina autokonfrontazioak erakutsi zigun ea teoriak balio digun. Formazio batean teoriatik ikasitakoa baino harago doa bidez grabatutakoa elkarrekin aztertzea”.

“Helburua ez da gaizki edo ongi dagoen epaitzea, gertatu zena ikusi eta hobetzeko gakoak ateratzea baizik”

Edurne Apalauza, San Fermin ikastolako berrikuntza pedagogikoko arduraduna

# UDAKO TOPAKETAK

Uztailak 3, 4 eta 5, Donostian



hh  
hik hasi

Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

Informazioa eta izen-ematea: [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus)



“Irudi du Frantzia mendratuak  
dituen herrien beldur dela”

# ELKARRIZKETA:

# AINES

# DUFAU

IKAS EUSKAL PEDAGOGIA ZERBITZUKO ZUZENDARIA

Ikas euskal pedagogia zerbitzuak 25 urte bete ditu, eta lemazain nekaezina eduki du urte hauetan guztietan: Aines Dufau. Amikuzeko (Nafarroa Beherea) familia euskaldun batean jaio, eskolan frantsestu eta 17 urterekin erabaki zuen erdaldun izateari utzi eta euskaldun bihurtzea. Geroztik, euskalgintzan murgildu eta lkasen dihardu. Ikasek euskara eta euskarazko irakaskuntza hedatzen laguntzea dauka xedetzat, bai eta euskal

ondarea eta kulturaren ezagutza ikastetxeetan bultzatzea ere, hainbat bide erabiliz: Uztaritzeko bere egoitzako mediatekan mota guztietako dokumentuak kontsultatzeko edo mailegatzeko aukera eskainiz, pedagogia saileko animazioak eta ikerkuntza landuz, irakasleen formakuntza eta informazio saioak antolatuz, eta ikasmaterial berriak sortuz eta hedatuz. Irakasleen beharrei eta hizkuntza politikei beha bizi da Dufau.



Ikas euskal pedagogia zerbitzuko lantaldea hezkuntzako ordezkari bretoiekin, korsikarrekin eta okzitaniarrekin Uztaritzeko egoitzan.

**Ikase euskal pedagogia zerbitzua-  
ren ibilbidean zure izena nahitaez  
aipatu beharrekoa da. 30 urte egin  
dituzu bertan lanean, euskalgin-  
tzan aritzeko hautua egin zenuela-  
ko. Zer bultza zintuen hautu hori  
egitera?**

Lehen lana legelari baten kontsul-  
tan egin nuen, eta lan interesgarria  
zitzaidan. Aldi berean militante edo  
laguntzaile gisa ari nintzen eus-  
kalgintzan: AEKn, Euskal Herrian  
Euskaraz elkartearen, *Maiatz* argita-  
letxearen hedapen lanetan, halaber  
*Euskaldunon Egunkaria* abiatu  
zelarik ere. Euskalgintza pixka bat  
ezagutzen nuen eta 1991n jauzia  
egin nuen euskaraz bizitzeko xedez.

Baina, oroz gainera, zerbait kon-  
pondu beharra nuen, gorputzeko  
atal bat —euskara— falta baitzi-  
tzaidan. Eta horrek manatu du nire  
ibilbidea.

**Gorputzean zerbait falta zenuela  
diozu, euskara, alegia. Ipar Euskal  
Herrian familia euskaldun batean  
jaioa izan arren, euskara falta  
zitzazu. Nola da posible? Zer  
gertatu zen?**

1960ko hamarkadan sortua naiz,

Amikuzeko herri txiki batean.  
Euskaraz aritzea debekatua zitzai-  
gun eskolan, eta beraz, haurride-  
tarik lehenak erdara ekartzen zuen  
etxera. Ni bigarrena nintzen, ahizpa  
gehiena baino urte bat gazteagoa.  
Beraz, frantsesa jaso nuen ttipitan  
eta ez naiz oroit euskaraz mintza-  
tu izana. Alta, ingurumen guziaz  
baserrikoa eta euskalduna zen;  
gurasoak, familia eta auzoak, denak  
errotik euskaldunak. Gurasoak  
euskaraz mintzo zitzazkigun baina  
haurrek arrapostua frantsesetik ematen  
genien. Euskaldun hartzailea  
baizik ez nintzen.

Euskaraz ezin mintzatuz, hein  
batean ene gorputz-atal baten falta  
sentitzen nuen. Gainera herritar  
zahar batzuek ohartarazten zidaten  
ez nintzela gai euskaraz aritzeko,  
trufa edo berdin erreprotxu aire  
batekin. Hori ere euskalduntzeko  
akui lu gisa bizi izan nuen.

Baionako lizeoan lotu nintzaion  
euskarari, euskara lantzeko hautua  
izan nuenean. Hizkuntza ene saila  
zen, hizkuntzak nituen maite. Ordu  
arte frantsesetik, gaztelaniaz, ingele-  
sez eta errusieraz mintzatzeko gai  
nintzen; ez, ordea, euskaraz.

Zenbait urteren buruan, aitamekin  
euskaraz mintzatzen hasi nintzen  
eta gero, euskaraz. Euskaldun pus-  
katua nintzela sendi bainuen, urteak  
eman ditut berrosatzen, eta bide  
horretan nabil oraino.

**Eta berrosaketa horretan Ikasek  
ireki zizun bidea.**

Euskalgintzan sartzeko aukera izan  
nuenean, deliberatu nintzen. 1991n  
norbaile bilatzen zuten denbora erdiz  
aritzeko Euskaltzaindian eta beste  
denbora erdiz Ikasen, egoitza be-  
rean, Baiona Ttipian. Parada baliatu  
nuen eta gozotik Ikasen nabil.

**Hamarkadetako ibilbidea egin du  
Ikasek euskarazko ikasmateri-  
gintza ekoizten eta euskararen  
eta euskal kulturaren transmisioa  
egiten. Zein izan dira ibilbide horre-  
tako mugarririk?**

Ikas 1959an sortu zen kultur  
elkarte gisa, eskola publikoetako  
eta giritinoetako 200 bat irakasle  
bultzaturik. Garai hartan hiru ande-  
re aitzindari izan ziren: Madalena  
Jauregiberri eta Janamari Malharin  
irakasleak, eta Marijane Minabe-  
rri haur literatura saileko idazlea.

1970eko hamarkadan bazen herri ttipien aldeko eta arteko askapen mugimendu handia eta hori ageri da Ikasen orduko artxiboetan: ikasmateriala egiten zen, baita kultura eta hizkuntza gutituen aldeko koordinazio lana ere Frantzia mailan. Ikasen lehen idazkaria Manex Goihenetxe historialaria zen, eta elkarburua Jean Haritxelhar.

1991n Ikasen eta Euskaltzaindiaren langile gisa hasi nintzenezan, Danièle Albizu euskal irakaslea eta Urruñako hautetsi abertzalea zen Ikaseko elkarburua. Bestalde, Jean Haritxelhar zen euskaltzainburua eta Piarres Xarriton Euskaltzaindiaren Iparraldeko ordezkaria. Biekin anitz ikasi dut Euskaltzaindian egon naizen bost urteetan. Biziki baliatu zait Euskaltzaindian ikasia, eta haren bidez ezagutu eragileak, bereziki Hegoaldekoak.

1993tik 1996ra halako bihurtune gertatu zen Ipar Euskal Herrian, orduan landu baitzen lurraldearen antolamendua, hainbat sailetan: besteak beste azpiegituretan, mugaz gaindiko harremanetan, laborantzian, turismoan, kulturaren hizkuntza politikan, eta abar, hori guziaz Ipar Euskal Herriko Garapen Kontseiluaren ardurapean. Testuinguru horretan, Ikas kultur elkarte oraingo Ikas pedagogia zentro bilakatu zen. Baiona Ttipitik lekutu zen eta Uztaritzen plantatu.

### **Nolakoa izan da hizkuntza politika?**

Iparraldeko hizkuntza politika nolakoa den ageri da azken hogeituro urteetako inkesta soziolinguistikoen emaitzei behatuz: euskararen gainbehera ez dela gelditzen. Daturik ohargarriena erabilerarena da: % 5ez petik da gaur egun.

Euskararen Erakunde Publikoa 2004an sortu zen hiztun osoen egiteko helburuarekin eta gazteak lehenetsuzko xede gisa finkaturik. 2014an, Iparraldeko hautetsiek berek erran zuten Euskararen Erakunde Publikoaren aurrekontua bikoiztu behar zela, bakarrik hiru milioikoa baitzen orduan, eta euskara biziberritu behar zela Iparraldean. Erran, baina ez egin. Gaur egun, EEPren aurrekontua lau milioikoa

da eta funtsezko aitzinamendurik ez da egin. 2017an sortu den Euskal Elkargoak badu rol handia jokatzeko, nahi badu...

Oraingo hizkuntza politikak euskara itzaltzeko bidean uzteaz gain, euskalgintzako eragileen egoera kordokan ematen du. Hori goraki diote garai honetan Iparraldeko AEKK eta aisialdiaz arduratzen den Uda Leku elkarteak.

Irakaskuntza da gehienik aipatzen eta hor ere datuak argi dira: lau ikasletarik hiru frantsesezko sailean eskolatuak dira. Murgiltze sistemak ikasle guztien % 7 baizik ez ditu biltzen.

Eta eskolatik kanpoko ingurumena azkarki aldatzen ari da: urtero 3.000 bat jende heldu delarik kanpotik Iparraldera bizitzera. Denentzat, erran nahi baita heldu berrientzat eta euskaldunentzat, hobeki litzateke euskararen herrian direla ohartarazten bagenie, eta araberako harrera egiten, gure kultura eta hizkuntza ezagut eta ahalaz estima dezaten.

Baina herri mugimenduak ez dezake hori bakarrik eraman. Handia da gure erakundearen ardura!

Iduri du Frantzia mendratuak dituen herrien beldur den, eta euskara bezalako mintzairak traba zaizkiola. Zergatik hainbeste tema itzaltzeko bidean ezarri dituen mintzairaren kontra? Euskara mintzatzen den artean, batzuk gaizki dira, Parisen, eta hemen berean ere. Gure mintzairak denen aberastasuna izateko partez, hastial zaizkie eta kito, ene iduriko.

### **Ikasek nolako harremana du administrazioarekin?**

Frantzian ez da elkarte moduan antolatua den egiturarik ikasmaterialgintzan, salbu Ikas. Beste guztiak Hezkuntza Nazionalaren adarrak dira: bretoiak, okzitaniarrak, korsikarrak eta itsasoz haraindiko uharteetakoak.

Oraixtian aipatu dudana lurralde antolamenduari buruzko gogoetaren kariatara, Iparraldeko hautetsiek baieztatu zuten lehengo Ikas kultur elkarte pedagogia zentro bilakatu zela, Hezkuntza Nazionalaren pareko eginkizuna ukanen zuela eta

“Euskaldun puskatua nintzela sendi bainuen, urteak eman ditut berrosatzen, eta bide horretan nabil oraino”

“Lau ikasletarik hiru frantsesezko sailean eskolatuak dira. Murgiltze sistemak ikasle guztien % 7 baizik ez ditu biltzen”

“Heldu berrientzat hobeki litzateke euskararen herrian direla ohartarazten bagenie, eta araberako harrera egiten, gure kultura eta hizkuntza ezagut eta ahalaz estima dezaten”

“Sareen arteko elkartasuna are beharrezkoagoa da haizea ez delarik alde”



Aines Dufau Ikaseko zuzendaria Maite Erdozaintzi Ikaseko lehenkariarekin.

beharren arabera dirua pedagogia tresnen sortzeko. Baina dirulaguntza bozkatzeko uanean, frantses estatuak ezetz erran zuen: dirua ematekotan, bere usaiako zerbitzuek zutela jaso beharko, eta Ikas azpikontratatu gisa ariko zela.

Sokatira partida bortitza izan da 2000. urtetik 2009.era arte.

Frantziako Hezkunde Nazionalak Ikasen lana oztopatzen zuen eta dirulaguntza Ikasi itzala egin ziezaiokeen beste elkarte bati ematen. Jazarpenak iraun du eta Ikasen irudia prentsan ere zikindua izan da. Biziki gaizki bizi izan dut, nahiz irakasle batzuek etengabe sostengua ekartzen ziguten, eta halaber Ikasen euskalgintzako elkarteek, euskal unibertsitarioek eta euskaltzainek.

Ikasek nolabaiteko sinesgarritasuna lortu zuen lehen matematika liburuak, hizkuntza saileko tresna batzuk eta haur literatura obrak plazaratzean.

2009an hautetsi batek ararte-

ko lana egin zuen eta azkenean Hezkunde Nazionalak ikerketa bat eginarazi zuen Ikasen jarduna aztertzeko. Ehun bat pertsona elkarrizketatu ziren eta ondoren txosten bat egin zuten. Ikerlariak ondorioztatu zuen Ikasen labela kalitatearena zela, argitalpen sailean, pedagogia sailean eta hizkuntza sailean.

2010az geroztik harreman normalak dauzkagu Hezkunde Nazionalarekin. Gure eginkizunen betetzeko mediorik aski ez baldin badugu ere, azken hiru urte hauetan egoera hobetu zaigu, bereziki Bigarren Hezkuntzako materiala sortzen hasten ahal baikara, azkenean.

**Ikasen ikasmaterialgintza jardunari begira jarrita, itzulpen lanez gain, sorkuntza lanak gero eta pisu handiagoa hartzen ari dira, ez da hala?**

Bai, preseski. Duela 25 urte, dena egitekoa baitzen eta bakarrik bi langile baikin, lehenik irakasle boluntario batzuekin euskararen lantzeko tresna zenbait sortu geni-

tuen, euskaraz irakasteko hiztegiak finkatu (matematiketan, historia eta geografian, zientzietan...) eta euskaraz irakasteko materiala frantsesetik itzultzen hasi ginen.

Matematiken irakasteko liburuak eta fitxategiek arrakasta handia bildu zuten. Oso material ona zen, parte handi batean euskaraz ongi jantzia zen Iban Harluxet matematikariak ekarri laguntzari esker. Liburuok irakasle askori aldatu diete bizia, hala erran digute.

Gaur egun, Lehen Hezkuntzako proiekturik handiena, hats luzekoa, mailaz maila hizkuntzaren lantzeko metodoa dugu, proposamen aberatsa ekartzen duena didaktika sailean, kultur edukietan eta euskarrien ikuspegitik ere.

Bigarren Hezkuntzako historia eta matematika sailetan, sorkuntza lana egiten ahal dugu, gai bakoitzean irakasle bat denbora erdiz libratzen baita ikasmaterialaren sortzeko.

Gertatu zaigu, bestalde, Seaskako hiru irakaslek sortu fisika eta kimika liburuen argitaratzea. Biziki estimagarria da irakasleek denen faboretan eginga, nola ez!

**Euskal Herriko ikuspegia txertatzen duzue materiala sortzerakoan.**

Ikasen denbora erdiz ari diren irakasleak esperientzia handikoak dira eta badakite norentzat ari diren. Ikasleen hizkuntza maila kontuan hartzeaz gain, gure ondare naturala eta kultura balioztatzen dute. Hori begi-bistakoa da euskara eta literatura sailean, eta posible da euskaraz irakasten diren gaietan ere.

Historia saila munta handiko gaia da kultura transmititu nahi denean. Aurten Maite Urmeneta lankideak XIX. mendeari buruzko liburua plazaratuko du eta hartan Euskal Herri osoko dokumentuak azaltzen ditu. Ikustekoa da!

Matematika nozioen lantzeko, ingurumen hurbilean aurki daitezke adibideak, hala nola Donibane-Lohizuneko badiaren zabaleraren kalkulatzeko bideak.

Zinez pozgarria da denbora erdiz Ikasera heldu zaizkigun euskara, historia eta matematika sailetako irakasleek ekartzen dutena, oraingo

praktiken araberako tresna erakargarriak sortzen baitituzte, hori guztia talde lana eramanez Ikaseko lankideekin.

Aurten euskal irakasle guztiei ezagutaraziko diote sortu berri duten materiala, nor bere sailean, eta jakin-minez gaude pedagogia tresna horiek nola hartuko eta erabiliko diren ikastetxeetan. Izan ere, materiala argitaratu aitzin, ikastetxe zenbaitetan probatzen da, irakasleen laguntzaz.

### **Ikasmaterialaz gain, zuen egoitzan liburutegia daukazu eta irakasleak etor daitezke. Horrek haiekiko harremanak estutzen laguntzen du?**

Bai, eta hori biziki inporta zaigu. Gainera, bi aukera dauzkagu irakasleekin hitz egiteko: irakasleak mediatekara etortzen direnean, eta bestalde, Ikasek argitaratzen duen materialaren bila heldu direnean. Askotan irakasleak bien bila heldu dira: Ikasen titulu berrien hartzerara eta mediatekako dokumentuen mailegatzerara.

Beraz, bi aukera dauzkagu irakasleekin solas egiteko. Gure lankideek, bai dokumentalistak bai banatzaileak, biek dituzte harreman jarraikiak irakasleekin, eta horrela hartzen dute haien egoeraren eta beharren berri.

### **Zuen zerbitzua Ipar Euskal Herri osoko irakasleei irekia al da? Sare guztietako irakasleengana iristen al da?**

Bai, eginkizun publikoa betetzen dugun ber, Iparraldeko euskal irakasle eta ikasle guztientzat ari gara. Lehen Hezkuntzako irakasleak dira gehienik heldu Ikasera, haientzat euskarri materialeko tresna anitz gehiago baitugu eskaintzeko. Bestalde, pedagogia egunetan zuzenean irakasleekin harremanetan gaude. Hitzordu horiek beharrezkoak zaizkigu, dudarik gabe.

Bigarren Hezkuntzari doakionez, luzaz urrun sentitu ditugu irakasleak, tresna guti baikenuen haiei eskaintzeko: oroz gainera frantsetik itzuli materiala. Orain hiru irakasle lan egiten dute ikasmaterialgintzan, denbora erdiz eta horrek

hobekuntza handia ekartzen du. Bidean, ikasmateriala sortzen ari diren irakasleek lotura egiten dute beren saileko lankideen eta Ikasen artean.

Bestalde, Hezkunde Nazionalako ikuskari batzuk, hain zuzen Ikasen kontu ari diren irakasleen sailetakoak, euskal irakaskuntzaren aldekoak dira. Haiei esker, Ikasek parte hartzen ahal du antolatzen dituzten irakasleen mintegietan, eta hartan biltzen dira sare publikoko, sare giristinoko eta Seaskako irakasleak.

Biziki inporta du jendeen arteko harremana izatea. Komunikazio digitala baino askoz goxoagoa eta eraginkorragoa da!

Harreman zuzen horiek oso motibagarriak dira Ikaseko talde osoarentzat. Denak oso gogotsu ari gara eta denek ahal bezain ongi lan egiten dugu, zerbitzu publikoaren eginkizuna ongi bete nahian, orduan gure zerbitzu hartzaileekilako harremanak gogotik hartzen ditugu, bistan da.

### **Sare desberdinetako irakasleekin beren artean harreman ona al dute?**

Bai, eta hori ikusten dugu irakasleen mintegi edo elkarretaratzeeetan. Azkenean, erronka berberak dituzte: ikasleak aitzinarazi behar dituzte, mailaz maila segi dezaten euskal irakaskuntzan. Ikasleen eta gurasoen gogoia suspertzen segitu behar dute. Seaskaren eredu azkarrena izanik ere, denak elkarren beharretan dira irauteko eta gartzeko. Masa kritikoa den artean baizik ez da egiten ahal.

Eta sareen arteko elkartasuna are beharrezkoagoa da haizea ez delarik alde: Frantziako Gobernuak errepikatzen du beti frantsesa dela errepublikaren hizkuntza eta horrez gain, lurralde hizkuntza gutituak ingelesarekin eta espainolarekin lehian ematen. Nabari da 2019an egin zen Batxilergoko erreformaz geroztik. Nahi ala ez, horrek ere irakaskuntza goitik behera hunkitzen du.

Ez da harritzekoa beraz euskalgintzan hiru sareek bat egitea euskalduntzen duen hizkuntza politikaren eskatzeko. Hala gertatu zen

2021eko maiatzean, *Molac* legearen testuinguruan, murgiltze sistemaren kontrako erasoari buru egiteko; 9.000 lagun bildu ziren Baionan, eta besteak beste hiru sareetakoak. Eta hala gertatu da apirilaren 22an Baionako karraketan, *Azterketak euskaraz, euskarari trabarik ez!* lelopean egin den manifestaldi jendetsuaren karietara.

### **Zer harreman duzue Hegoaldeko erakundeekin eta elkarteekin?**

1990eko hamarkadan, Ikas oraino kultur elkarte zelarrik, ez oraingo Ikas zentro gisa antolatua, harreman jarraikiak bagenituen Hegoaldeko elkarte zenbaitekin. Mugaz gaindiko dirulaguntzak baliatzen genituen proiektu batzuen elkarrekin eramateko, adibidez astebeteko egonaldiak Hegoaldeko eta Iparraldeko ikasle eta irakasle multzoentzat, denak elkarrekin Bakaikun. Oroitzapen ederrak ditut.

Harreman iraunkorrak josi ditugu bibliotekonomia sailean 1997az geroztik. Ikasen mediatekaren antolatzeko, Hegoaldeko dokumentazio sailetako arduradunengana jo genuen, eta halako sare bat antolatu zen orduan Iparraldeko eta Hegoaldeko dokumentalisten artean. Joana Albret Bibliotekonomia Mintegia sortu zuten Ikas, Koldo Mitxelena kulturunea, HABE, Euskaltzaindia eta beste partaide batzuetako liburutegietan. Garai batean euskal liburutegi nazionalaren ametsa ere izan da...

Euskararen Erakunde Publikoa sortuz geroztik, diru beharretan oinarritzen ez diren harremanak baditugu Euskal Herri osoko elkarte eta erakunde zenbaitekin: Euskaltzaindiarekin, bistan da, gure argitalpenen gainbegiratzailerak izateaz gain, Ikasen partaide historikoetarik baita, halaber UEUrekin, Kepa Sarasola zuzendari ohia dela medio lotura atxikitzen dugu beti, eta nola ez **Hik Hasirekin**: 25 urte hauetan, luzaz Joxe Mari Auzmendirekin eta orain Ainhoa Azpirotzekin.

Batasunen ibilbidea polita da jendeen arteko harremanez ehuntzen baita, denek helburu bera dugularik!

# ESPERIENTZIAK I

ORIANTE BHI-KO ONGIZATE PROIEKTUA

## Ikasle zaugarrientzat, neurriko erantzuna

Ez da erraza ikasle nerabeak sei orduz eskolan edukitzea, are zailagoa egoera zaugarrian bizi direnak. Lasarte-Oriako Oriarte BHIIn egoera zaugarrian dauden ikasleei beste era bateko arreta emateko proiektu bat daukate, absentismoari aurre egin eta ikasle horiek ikasten jarrai dezaten. Arreta emozionala, gainean egotea eta eskola praktikoak eskaintzea du oinarri.

**D**errigorrezko Bigarren Hezkuntzan ikasle asko ezinean dabilta, kostata jarraitzen dituzte ikasketak, errepikatuz, motibaziorik gabe iristen dira eskolara, etxeko egoera desegituratuak ez die batere laguntzen eta emozionalki gabezia nabarmenak dituzte. Hitz bakar batean esateko, egoera zaugarrian iristen direla esan daiteke. Lasarte-Oriako (Gipuzkoa) Oriarte BHIko hezitzaileek adarretatik heldu diote egoerari eta Ongizate proiektuaren bitartez egoera zaugarrian dauden ikasleei laguntzen diete.

Iaz jarri zuten martxan proiektua DBHko 1. mailako 8 ikaslerekin eta 2. mailako 11 ikaslerekin, eta aurtén 2. mailako 10 ikasle dituzte. Xedea ikasle horiei arreta eta laguntza beste modu batera ematea da. Maria Luisa Garmendia proiektuaren koordinatzaileak argi ikusten zuen hainbat ikaslek beste era bateko arreta behar zutela: “Lasarte-Oria herri handia da, testuinguru sozioekonomiko zaila dute hainbat familiak, kanpotarrak dira asko, familia desegituratu asko dago... eta ikasle



Diego López-Zuazo zuzendari albokoa eta Maria Luisa Garmendia Ongizate proiektuaren koordinatzailea.

askok akademikoki zailtasunak dituzte, mailak errepikatuta iristen dira DBHra, arazo eta hutsune emozionalak dituzte, familiaren aldetik arreta falta nabaria dute, absentismoa ere handia da, pandemiak eragina izan zuen... Ikasle horiei beste mota bateko arreta emateko eta beste modu batera laguntzeko sortu genuen Ongizate proiektua”.

### Beste modu bateko eguna

Ikastetxe handia da Oriarte, Lasarte-Orian DBH ikasten duten nerabe guztiak hartzen dituen. Herri erdiguneko eraikinean DBHko 1. eta 2. mailakoak elkartzen dira, eta herriaren goialdean dagoen eraikinean, DBHko 3. eta 4. mailakoak eta Batxilergokoak. Zortzi lerro dituzte beheko eraikinean eta bospa-



Jolasgaraiaren ondoren, proiektuko ikasleak Ongizate gelan elkartzen dira.

sei goikoan, eta guztira 850 ikasle biltzen dira.

Proiektuan parte hartzen duten ikasleak gainerakoen moduan iristen dira goizeko 8:00etan ikastetxera eta errefortzuko irakaslea atean izaten dute harrera egiten, etorri diren edo ez ikusten, “zer moduz zaude gaur?” galdetzen, emozio-nalki gaizki etorri baldin badira zer duten galdetzen... eta gelara laguntzen. Harrera egitearekin batera, lotura emozional bat eskaintzen die errefortzuko irakasleak.

“Lehen hiru saioetan (8:00-10:45) gela arruntetan egoten dira gainerako ikasleekin batera; lau gelatan banatuta daude, gela bakoitzean bi. Eta denbora horretan erreferentziatzeko taldearekin egokitzen zaien ikasgaia lantzen dute eta errefortzuko irakaslea taldez talde ibiltzen da ikasle horiei jarraipena egiten eta laguntzen”, azaldu du Garmendiak. Normalean ikasgai praktikoenak jartzen dituzte lehen orduetan: Gorputz Hezkuntza, Teknologiako tailerra, Musika... “Gero, jolasgaraiaren ondoren, hurrengo hiru orduetan, beste gela batera etortzen dira eta proiektuko hamar ikasleak bertan elkartzen dira bi irakaslerekin. Irakasle batek eremu zientifikoko ikasgaiak irakasten dizkie eta

besteak hizkuntzen eremukoak. Talde arrunteko ikasgai berak dituzte, baina gutxieneko edukiak lantzen dira. Eta horrez gain, modu praktikoa lantzen saiatzen gara: tailerrera joanez, ariketa gehiago eginez eta abar. Fitxak, eskola tradizionalak, liburuak eta apunteak alboratu eta modu praktikoa lantzen gara. Esate baterako, atomoak lantzeko kartoioak, poliespana, pintura eta guraizeak hartu ditugu eta matematikan zatikiak autozuzentak egiten dituen aplikazio batekin landu ditugu. Saiatzen gara, ahal den neurrian, arloa modu erakargarriagoan lantzen. Zerbait praktikoa emanez gero, oso erraz lotzen direla konturatu gara”.

Gainerako ikasleentzat ere modu praktikoa hau egokiagoa edo erakargarriagoa izango ote litzatekeen galdetuta, Diego López-Zuazo zuzendari albokoak baietz dio, “eta egiten da; DBHko 3. mailan, esate baterako, zelula lantzeko maketa bat osatu dute eta zelularen muntaia egiten dute. Proiektua lan egiten dugu gainerako ikasleekin ere, baina, horrez gain, badaude landu behar diren alderdi teoriko batzuk. Esan bezala, Ongizate proiektuko ikasleekin minimoa lantzen da, bai-

na beste ikasle batzuek goi mailako ikasketak egingo dituzte eta horiei ere dagokiena eskaini behar zaie”.

#### Arreta da gakoa

Hamar ikasleko taldea eta bi irakasle; horrela egoten dira Ongizate proiektuko ikasleak eskolako garaiaren bigarren zatian. Talde txikian, beraz, eta ezagunak eta gertukoak diren irakasleekin. “Gertutasuna oso garrantzitsua da ikasle horien kasuan. Batzuk ohiko taldeko ikasleak baino bi urte zaharragoak dira, nahiko desmotaibatuta daude... eta talde arruntean

“Arreta behar dute, etengabeko arreta, eta gela arrunteko irakasleak ezin du haien gainean egon”

Maria Luisa Garmendia  
Ongizate proiektuaren  
koordinatzailea

## ESPERIENTZIAK: ONGIZATE PROIEKTUA

“Segur aski Ongizate proiektuko ikasleentzat eskola da euren bizitzan egitura bat daukan gauza bakarra”

Diego López-Zuazo  
Oriarteko BHIko  
zuzendari albokoa



Ongizate proiektuko ikasleek egindako maketa bat, edukiak modu praktikoan landuz.

—beste 23 ikaslerekin eta irakasle batekin— galdu egiten dira. Arreta behar dute, etengabeko arreta, eta gela arrunteko irakasleak ezin du haien gainean egon”, dio Garmendiak. Zenbait egunetan gela arruntetik antsietateak jota eta negarrez ateratzen dira ikasle horiek. “Kasu horietan, dena utzi eta arreta ematea da lehentasuna, ikasleen behar emozionalei erantzutea”.

Horregatik erabaki zuten jolasgaraiaren ondoren denak batera bi irakaslerekin jartzea. Horrela, gainean egoten dira eta jarraipen estua egiten diete. “Ikasle horiei, gainean inor ez baldin badute, lanean hastea kostatzen zaie. Oso gainean egonda lortzen da zerbait egiten hastea, agenda antolatzea, eguneroko lana aurrera ateratzea, antolaketa hobetzea... Eta harrigarria da ikustea zer egitea lortzen duten. Arreta personalizatua eskainiko ez bagenie, ez dakigu non egongo lirartekeen”, gaineratu du proiektuaren koordinatzaileak.

“Haien ongizate emozionala zaintzea da gure helburua, arreta ematea, horrek laguntzen dielako nolabait hezkuntza sistemaren barruan jarraitzen. Absentismoa indartsua izaten da, eta ikasle horiek hezkuntza sistematik at geratzeko arriskua dute. Gu harro gaude goizeko 8:00etan hona etortzen direlako eta 14:00ak arte geratzen

direlako. Lorpen bat da”, dio Oriarteko zuzendari albokoak.

### Sare zabala elkarlanean

Proiektuko ikasle gehienek familian arazoak dituzte, “arrazoi bat edo beste izan, familiaren aldetik babes falta dute, utzita daude”, dio López-Zuazok. “Gogorra da familientzat ere, agian egun osoan lanean jardun behar baitute. Guk ikusten duguna da kasu batzuetan umeak bakarrik daudela egun osoan. Batzuetan heldu-erreferenteak falta zaizkie bidelaguntza emateko, zer den ona eta zer den txarra esateko. Normalean emanda etortzen zaiguna ez daukate ume hauetako batzuek. Guk ez dugu imajinatzen gure familia ez denik guretzat hor egongo eta gu izango garenik oso gaztetatik zer egin erabakiko dugunak. Kasu batzuetan hori gertatzen da, umeak edo nerabeak dira haien bizitzako erabakiak hartzen dituztenak”. López-Zuazok egitura baten falta dutela azpimarratu du. “Segur aski haientzat eskola da euren bizitzan egitura bat daukan gauza bakarra”.

Familiekin ere lan egiten saiatzen dira, nahiz batzuekin ez izan erraza komunikatzea eta ikastetxera etorraztea. “Ikasle batzuen kasuan eskuhartze familiarra edo terapia familiarra egiteko beharra ikusten dugu, gurasoekin arazoak, liskarrak edota gorabeherak dituztelako”, erantsi du

Garmendiak. “Gizarte Zerbitzuekin, Lasarte-Oriako Berritzegunearekin eta nerabeei arreta ematen dieten zenbait erakunderekin ere lan egiten dugu, ikasleei eta familiei hainbat orientazio emateko”.

### Bide berriak irekitzen

Iaz 2. mailan egon ziren 11 ikasletatik 9 DBHko 3. mailako dibertsifikazio gela batera joan ziren, alegia, ikasketekin jarraitu zuten Oriarten bertan. Ondoren Lanbide Heziketako erdi mailako ziklo bat egin dezakete. “Ikasleak gustura ikusten ditugu. Jolasgarria bukatutakoan Ongizateko gelan sartzen dira, inork ezer esan gabe. Gustura dauden seinale”, dio Garmendiak. “Ikasle gazteak dira, 12-15 urte dituzte, eta guk lortu nahi duguna da eskolarekin pixka bat lotzea, etorraztea, babesa ematea, arreta eskaintzea, jarraipena egitea eta ez gelditzea kalean edo etxean, kaleko kontsumo arriskuarekin... Proiektuaren helburua laguntza ematea eta ibilbide akademikoarekin jarraitzea da”, gehitu du López-Zuazok.

Proiektu pilotua da eta datorren urtean ere jarraipena emateko eskaera egingo dute. Ikasleen alderdi emozionalari erantzuna ematen asmatzen ari dira, helduleku sendo eta goxo bat eskainiz, ikasketekin jarraitu dezaten eta bizitzaren norabidea okertu ez dakien.

*bizi  
ikerketa!*



# zientzia azoka elhuyar

**BILBOKO  
AREATZAN**  
ekainaren 2tik 4ra  
— 2023 —

**GAZTEEK**  
ikasturtean egindako  
**STEAM**  
proiektuak  
**IKUSGAI**

## Zatoz!

**SARI-BANAKETA**  
ekainaren 4an 13:30etan  
**Areatzan bertan**

[zientzia-azoka@elhuyar.eus](mailto:zientzia-azoka@elhuyar.eus)

Babesleak:



GOBIERNO  
DE ESPAÑA

MINISTERIO  
DE CIENCIA  
E INNOVACIÓN



**kutxa**  
FUNDAZIOA



Gobierno de Navarra  
Departamento de Educación



Nafarroako Gobernua  
Hezkuntza Departamentua



Kolaboratzaileak:



# EKARPENAK I

ERREFERENTZIA DIREN EMAKUMEAK

## 'EmariApp', erreferentzia diren emakumeen izenak asmatzeko joko berria

'EmariApp' erreferentziazkoak izan daitezkeen emakumei buruzko euskarazko joko bat da. Doakoa da, eta telefono mugikorretara eta tabletetara deskargatu daiteke. Kalaka Kooperatiba elkarte txikiak kaleratu du, eta emakumeek egindako ekarpena ezagutaraztea du helburu.

**G**aur egungo eta iraganeko emakumeak bildu ditugu *EmariApp* jokoan, hainbat herrialdetakoak eta hainbat arlotakoak, eta jokoaren bidez, horiek nor diren asmatzeko aukera izango da. Jokoaren helburu nagusia emakume gehiagoren berri izatea da, ezagunak egiten zaizkigun apur horietatik harago ere, emakumeen hainbat lorpen eta ekarpen ezagutaraztea, euskaraz eta egunerokoan. Gizonak egiten dutena ikasi dugun moduan, emakumeek egindakoa isildua eta zapaldua izan da urte luzez, eta desagertuta egon dena ikastea da helburua. Era horretan, errealitatearen ikuspegi erreala izango dugu, ez gizonezkoena (androzentrikoa) soilik.

Aplikazioa IOS eta Android sakelako telefonoetan eta tabletetan deskargatu daiteke, eta norberak jokatutako partidak ikusteaz gain, sailkapen orokorra ikus daiteke. Taldeak sortzeko aukera ere badago. Jolas egokia da lagunekin, gelakideekin, lankideekin eta familiartekoenkin taldeak sortzeko eta elkar zirikatzeko.



### ILAZKI GAINZA GIRALDO Berdintasun aholkularia Kalaka Kooperatiba Elkarte Txikian

Hizkuntzari dagokionez, euskaraz sortutakoa da, eta asmatu beharreko arrastoak ulergarriak eta laburrak dira. Euskaldun guztientzat gozagarri izatea nahi dugu, eta, beraz, euskara ikasten ari direnak ere jolastera animatzen ditugu!

### Jokoaren nondik norakoak

Astero, bost emakumerekin lotutako partidak jokatzeke aukera izango da. Emakume bakoitza nor den asmatzeko bost arrasto daude, eta minutu eta erdiko denbora. Astelehenetik ostiralera bitartean, egun bakoitzean emakume bati buruzko partida bat jokatzeke aukera dago, baina, egunero egin ezean, aste osoan zehar dago partida horiek jokatzeke aukera. Hau da, astelehenetik ostiralera egunero partida bat jokatu beharrean ostiralean bostak jokatu nahi baldin badira, edo asteburuan jokatu nahi baldin badira, horretarako ere badago aukera.

Bestalde, sailkapena hilabetekoa denez, astean zehar jokatu ez diren partidak hurrengo asteetan jokatzeke aukera dago; baina, hori bai, aurreko asteetako partidek puntuazio txikiagoa dute.

Helburua ez da egunerokoan estresa sentitzeko aitzakia bat gehiago izatea, jolastuz ikastea eta ongi pasatzea baizik. Hau da, norberak nahiago duen moduan antolatuta, emakume horien guztien berri izatea lortu nahi dugu.

## Ibilbidea

Duela urte batzuk Kalaka Kooperatiba Elkarte Txikian abiatu genuen ibilbidearen azken emaitza da jokoak. 2017an, *Emariak* liburua geuk ekoitzi eta argitaratu genuen. Liburu horretan, erreferentziazkoak izan daitezkeen emakumeak bildu genituen, bai norbanakoak eta baita taldean aritu direnak ere. Guztia, euskaraz. Gerora, *Emariak* karta jokoa ere geuk ekoitzi genuen, helburu horrekin berarekin: emakumeen berri zabaltzea. Bi euskarri horiek izan zuten arrakastak ikusarazi zigun bai eskoletan eta baita etxeetan ere euskaraz hezkidetzaz lantzeko baliabideak behar zirela.

Hori horrela izanik, oraingoan Internetera egin dugu salto, eta sakelako telefonorako aplikazio bat sortzea otu zaigu. Aplikazioa sortzeko garatzaile informatiko batzuekin aritu gara elkarlanean, eta proiektua bideragarria izan dadin, Emakunde, Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia izan ditugu sorrera honetan babesle nagusi.

## Hobekuntzak

Otsailean kaleratu genuenetik, hainbat hobekuntza egin ditugu aplikazioan. Horietatik bi azpimarratuko ditugu: *Emariak* atalean, emakumeen izen-abizenen gainean klik eginez gero, beren biografiak irakur daitezke, helburua ikastea eta ahalik eta pedagogikoena izatea baita. Bestetik, sailkapen nagusian eta taldeen sailkapenean, “e” bat agertzen da *EmariApp* egunean daramaten erabiltzaileen ondoan.

## Aplikazioaz harago

Aplikazioaz harago, baina aplikaziotik abiatuta, familian edota eskolan hainbat gai lantzeko aukera eskaintzen digu jokoak. Esan bezala, hainbat arlorekin lotutako zenbait emakumeren izenak asmatu behar dira jolasean (kirolariak, artistak, asmatzaileak, ingeniariak, euskaltzainak, biologoak, irakasleak, bertsolariak eta abar), hainbat herrialdeetako eta hainbat garaitako emakumeenak.



Horrek arlo horietan aritu izan diren edo ari diren emakumeak ezagutzen ditugun edo ez hausnartzeko bide eman dezake; ezagutzen ez baditugu, zergatik izan litekeen pentsatzeko aukera izango dugu; eskolan, emakume horiek ezagutarazteko lanen bat ere bideratu daiteke... Eta familian ere gauza bera egin liteke, hurrekin zein helduekin.

Hau da, gaur, adibidez, *EmariApp* aplikazioan Elizabeth Magie asmatzea egokitu bazaigu —*The Landlord's Game* (*Monopoly*-ren aitzindaria) sortu zuen emakumea—, jokoen asmatzaileei buruz hitz egin dezakegu eskolan (baita lagunartean edo familiarartean ere). Zenbat emakume ezagutzen ditugu joko asmatzaileen artean? *Monopoly* jokoa aitzindaria nor zen ba al genekien? Jolasak hausnarketarako bide ematen du, arlo ugari landu daitezkeelako eta, bide batez, emakume ezezagunak ezagun egiteko aukera eskaintzen duelako, oso modu errazean, doan eta egunerokoan eskura izan ohi dugun sakelako telefonoa erabiliz. Sakelako telefonoan bertan bilatu ditzakegu emakume horien biografiak, lorpenak, emakume izateagatik arlo horietan izan dituzten edo egun dituzten oztupoak... Horrela, geure iruditegi pertsonalera eta kolektibora emakume gehiago batzen joango gara.

Horrez gain, aplikazioak duen *Informazioa* atalak beste emakume

batzuk proposatzeko aukera eskaintzen digu. Beraz, ariketa interesgarria izan liteke eskolan nahiz etxean gaiaren gainean hausnartzea eta erreferentzia izan daitezkeen emakume baten bizipenak eta lorpenak biltzea, eta bide batez, emakume hori proposa dezakezue, guk aplikazioan gehitu dezagun. Herriko edo hiriko emakumeak izan daitezke, hain eza-gunak ez direnak beharbada, baina arlo edota garai jakin batean garrantzitsuak izan direnak. Azken batean, erreferentziazko emakumeak falta zaizkigu, eta denak ditugu beharrezko gure iruditegia osatzeko: nazioartekoak, hemengoak...

Animatzen al zarete jokoa bidez harago joatera? Noizean behin bada ere, ingurukoengan hausnarketa bultzatuzera?

Instagram sare sozialean ere profila du *EmariApp* aplikazioak. Profil horretan, lehiaketei, sariei eta bestelako berriei buruzko informazioa argitaratzen joango gara. Beraz, egon adi esku artean ditugun sorpresei!

**Jokoaren helburu nagusia emakume gehiagoren berri izatea da.**

# EKARPENAK II

IRAUNKORTASUNERAKO HEZKUNTZA

## Iraunkortasunerako hezkuntza ala basakeria

Iraunkortasunerako hezkuntza lantzeko beharra azpimarratzen du Haizea Isasa Amasek artikulu honetan. Tolosako Orixe BHIIn egindako ikerketan oinarrituta, eskola bakoitzaren inguruan elkartzen den hezkuntza komunitateak tokian tokiko errealitatea kontuan izanda egin dezakeen prestakuntzarako prozesu eraldatzailea kontatu du Isasak, eta iraunkortasunerako hezkuntzaren aldeko apustua egin beharra azpimarratu du.

noiz pentsatu al duzu zenbat geratzen zaion planetari hazkunde ekonomiko esponenzial honekin jarraitzen badugu? Joan den otsailean telebistan eman zuten *Irauteko*, *murriztu* izenburupeko *Teknopolis* saioan, galdera hori egin zioten Alicia Valero Delgado ingeniari kimikoari. Zientzialariak muga fisiko eta ekologikoekin lotu zuen erantzuna, eta aipatu zuen trantsizio energetikoa (deskarbonizazioa) egiteko beharko ditugun baliabide materialen erauzketaren kostua (ekologikoa, ekonomikoa eta energetikoa) oso altua izango litzatekeela, planetan lehengaiak egonik ere. Meategi berriak usiatzen jarraitu arren, gero eta geldoagoak omen dira esplotazio erritmoak eta meategi gutxiago aurkitzen dira. Pentsa, 2035erako, bikoiztu egingo omen da kobreen eskaria; baina meategi berri gutxiago aurkitzen ditugu: ideia bat egiteko, azken hamarkadan, urtean 50.000.000 tona erauztetik 8.000.000 tona erauztera pasatu



### HAIZEA ISASA AMAS Bigarren Hezkuntzako irakaslea eta hezkuntza eremuan ikerketan aritua

dira. Beraz, argi eta garbi esan dezakegu planteatzen ari garen garapena ez dela bideragarria. Kobrearekin gertatzen den moduan,

gauza bera gertatzen da beste hamaika lehengairekin ere: gaur egungo bateriak fabrikatzeko erabiltzen diren litioarekin, kobaltoarekin, nikelarekin eta manganesoarekin, esaterako. Puntu kritikoak izango dira horiek, adibidez, auto elektrikoak hedatzeko edota digitalizazioarako. Zientzialariak ohartarazi zuen, jende guztiak trantsizioa guk egin dugun erritmoari helduta egingo balu, lehengaien erreserbarik gabe geratuko ginatekeela (kobalto kantitatearen beharra laukoiztuko litzateke, adibidez), eta lehengai horien eskasiak arriskuan jarriko lukeela deskarbonizazioa edo trantsizio energetikoa.

Orain arte bezala jarraitu nahi dugu, ordea, eta hori da arazoa: egunetik egunera kontsumoa handituz doa. Lurraren baliabideak mugatuak direnez, ez dugu kontsumoa murriztea beste aukerarik. Esatea erraza bada ere, aldaketa ez da gizartean halabeharrez gertatuko. Kultura eraldaketarako prozesu baten beharraz ari gara,

eta hezkuntza da eraldaketa horretarako gakoa: iraunkortasunerako hezkuntza, hain zuzen ere. Esku artean duzun artikulu honek, beraz, iraunkortasunerako hezkuntza hedatzeko baliabide izan nahi du, eskola bakoitzaren inguruan elkar-tzen den hezkuntza komunitateak tokiko errealitatea kontuan izanda aurrera eraman dezakeen prestaketa prozesu eraldatzaile baten kontaketa egiten baita lerro hauetan. Master Amaierako Lana baliatuz —*Gizarte eta hezkuntzako eremuen ikerketa* izenburua daramana—, lanean aritu nintzen Tolosako Orixe BHI institutuan bost hilabete zehar, eta han egin genuen ikerketa ekintza parte-hartzailearen esperientziaren berri emango dizuet. Maila loka-lean eta tokikoen parte-hartzearekin egindako ikerketarik ezean, ezinezkoa baita iraunkortasunaren aldeko kultura eraldaketarik gauzatzea.

### Iraunkortasunaren dimentsioak

Zenbait autorek iraunkortasunerako hezkuntza XXI. mendeko kalitatezko hezkuntzaren elementu integral gisa planteatzen dute. Baina zertaz ari gara iraunkortasunerako hezkuntzaz dihardugunean? Iraunkortasunaren edo jasangarritasunaren alde egitea da etorkizuneko belaunaldien beharrak arriskuan jarri gabe egungo beharrak bermatzea. Iraunkortasunak dimentsio asko ditu. Mikromatxismoekin erabiltzen den icebergaren metaforari helduz, iraunkortasunaz hitz egitean ere, soilik ingurumen arazoak etortzen zaizkigu burura. Baina jakin badakigu iraunkortasunik ezak askotariko arazoak biltzen dituela: ekonomikoak, teknologikoak, ingurumenari lotutakoak, politikoak, sozialak eta kulturalak; eta, gainera, arazo horiek elkarri eragiten diote. Batzuetan, icebergaren muturra baino ez dugu hautematen; baina nekez konponduko ditugu arazo horiek, sorburuan dauden arrazoiei heldu gabe. Iraunkortasunerako hezkuntzak garapenerako elementuen arteko lotura ulertzen laguntzen du, eta baita konplexutasun hori kontuan hartuta diagnosis egiten eta irtenbideak proposatzen



David Solanoren icebergaren irudia (2008) egokia izan liteke iraunkortasunerako hezkuntza azaltzeko.

ere. Beraz, gizarte industrializatu batean, gurean, adibidez, iraunkortasunerako hezkuntza irakasteko eta ikasteko prozesu bat izango litzateke, produkzio eta kontsumo joeren eraldaketa sustatuko lukeena. Horretarako, beharrezkoa da pentsamendu kritikoa garatzea, iraunkortasunaren aldeko balioetan oinarritzea, ekintza eta konpromisoa sustatzea, erabakietan parte hartzea, diziplinarteko ikuspegia bermatzea, eta tokiko eskala eta eskala globala uztartzea.

Bigarren Hezkuntzako irakasle izaki, ezin izan diot iskin egin azken urteotan bolo-bolo dabilen gai honi: XXI. mendeko erronkei erantzuteko konpetentziei, alegia. Azkenean, ulertu dut XXI. mendeko arazoak ebatziko dituzten ikasleak hezteak irakasle izateko modu berri bat eskatzen duela halabeharrez: ikasleari bere testuinguruan aktiboki eta kritikoki parte hartzea ahalbidetuko diona, eta demokrazia, parekidetasuna, kulturartekotasuna, aniztasuna, ingurumena eta abar errespetatzen dituzten balioak eta jarrerak transmititzea ahalbidetuko diona. Ezin uka dezakegu mundua eta hezkuntza testuinguru gero eta konplexuago bilakatzen ari direla, eta, horren ondorioz, modu berean, konplexuago bihurtzen ari dela irakaslearen lana, bai eta haren prestakuntza ere. Hortaz, irakasleen etengabeko prestakuntza ezinbes-

tekoa da, eta uste dut prestakuntza prozesua bera kolektiboa ahalduztzeko tresna gisa erabili beharko genukeela. Egundak, halako prozesuak gauzatzeko beharra sumatzen dut irakasleen artean, baina horretarako, eskolek autonomia nahikoa izan beharko lukete, beren prestakuntza planak diseinatzeko. Baliabideak behar dira lekuan lekuko ikastetxeetako premietara egokituak diren eta hezkuntza komunitateek bizi dituzten askotariko errealitateak kontuan hartuko dituzten berrikuntza proiektu komunitarioak martxan jartzeko.

Azaleratu ditut dagoeneko iraun-

**Kultura eraldaketarako prozesu baten beharraz ari gara, eta hezkuntza da eraldaketa horretarako gakoa: iraunkortasunerako hezkuntza, hain zuzen ere.**

**Gehien errepikatu zen ideietako bat hauxe izan zen: irakaskuntza praktika eraldatzeko, iraunkortasunerako hezkuntzan prestatu beharra genuela; eta diziplinen artean lan egiteko beldurra genuela ere askotan aipatu zen.**

kortasunerako hezkuntzaren eta prestakuntzaren beharrak, eta nire lanaren oinarriari buruzko azalpena bukatzeko, hirugarren gako bat aipatzea falta zait: diziplinartekotasuna. Aipatu dut iraunkortasunak dimentsio asko dauzkala, eta, hortaz, iraunkortasuna lantzeko, hainbat diziplinaren arteko begirada izatea izango litzateke egokiena. Badakigu diziplinarteko (edo eremukako) lana desafiatsu dela irakasleontzat, baina Europako azken hamarkadetakoa hezkuntza legeek argi erakusten dute hezkuntzaren norabidea horixe dela. Beraz, eskoletan egiten diren prestakuntza prozesuek ere diziplinarteko begirada bildu behar dutela uste dut.

### **Ikasleak iraunkortasunean hezteko proiektua**

Behin oinarria finkatuta, nire Master Amaierako Lanaren bidez zer lortu nahi izan dudana azaltzeari ekingo diot. Egindako lana prozesu eraldatzailea izan da, eta prozesu horretan, Tolosako Orixe BHIko Batxilergoko 1. mailako hainbat diziplinako irakasleek parte hartu dute. Helburua zen Batxilergoko 1. mailako ikasleak iraunkortasunean hezteko proiektu bat diseinatzea. Prestaketa prozesu horrek bazuen bigarren helburu garrantzitsu bat: irakas-

leen arteko ezagutza eraikitzea eta ahalduz kolektiboa bultzatzea, hain zuzen ere. Eta hori nola egin genuen? Bada, paradigma kritikoa-ren eta metodologia kualitatiboaren barruan kokatzen den ikerketa ekintza parte-hartzaile baten bidez. Esku hartzen den testuinguruaren eraldaketa soziala eragitea da paradigma kritikoa ezaugarri nagusia. Kasu honetan, iraunkortasunerako hezkuntzaren barneko eraldaketa parte-hartzaileon ahalduz etorriko litzateke.

Prestaketa prozesuan, hainbat diziplinako 16 irakasle hartu genuen parte: Ekonomia, Filosofia, Biologia eta Geologia, Matematika, Euskara, Ingelesa, Musika, IKT eta Marraketa mintegietakoek, hain zuzen ere. Nire lana, beste parte-hartzaile bat izateaz gain, taldeari ikerketa egiteko ezagutza eta baliabideak eskaintzea izan zen. Irakasleon prestakuntzarako gune gisa, hiru lantegi planteatu genituen, eta horietako bakoitzean, askotariko dinamika parte-hartzaileak eraman genituen aurrera. Dinamika horien bidez eta norberaren errealitatekin eta praktikarekin abiatuta, proiektuaren eraikuntzarako beharrezko informazioa lortu genuen.

Edozer sortzen hasi aurretik, ezinbestekoa da dagoeneko egiten denaz jabetzea. Beraz, lehenik eta behin, irakasleon abiapuntua zein zen aztertu genuen: irakasle bakoitzaren jarduna nolako zen, praktikan zer arazo edo beldur sumatzen genituen... Gehien errepikatu zen ideietako bat hauxe izan zen: irakaskuntza praktika eraldatzeko, iraunkortasunerako hezkuntzan prestatu beharra genuela; eta diziplinen artean lan egiteko beldurra genuela ere askotan aipatu zen. Oro har, ondorioztatu genuen irakaslearen esku geratzen zela iraunkortasunerako lanketa egitea; hau da, ez zela modu kontziente eta integratuan egiten. Hala ere, hainbat autorek nabarmendu duten moduan, irakasleek bazekiten etorkizun iraunkorra eraikitzeko ikasleekin Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) lantzea eraginko-

rra zela, eta lanketarako, ezinbestekoa zela praktikan ikasgelaren, gizartearen eta inguruaren arteko lotura egitea.

Prestakuntza prozesuan parte hartzen ari ginen irakasleon abiapuntua zein zen aztertu eta gero, sortu nahi genuen proiektuaren gakoak adosteari ekin genion. Hainbat arazo ekosozialen aurrean, aztarna ekologikoa hautatu genuen ikasleekin ebatzi beharreko arazo gisa, eta erabaki genuen hori lantzeko irakaskuntza metodologiarik egokiena arazoetan oinarritutako irakaskuntza zela. Ikasleek mundu errealekin lotura zuzena duen gaitatean aktiboki lan eginda ikasten dutenean, pentsamendu kritikoa, lankidetzarako gaitasunak, sormena eta komunikaziorako gaitasunak lantzen dituzte, edukiak sakon ikasteaz gain. Ondoren, ikasgai bakoitzean iraunkortasunarekin lotutako curriculumeko edukiak eta ebaluazio irizpideak hautatu genituen, eta informazio hori guztia bilduta, proposamen didaktikoa eta proiektua bera ebaluatzeko errubrika osatu genituen.

Bidean sortu zitzaigun arazoetako bat hauxe izan zen: Batxilergoan hainbat diziplinatan batera nola aritu behar genuen asmatzeko ezintasuna. Unibertsitate sartzeko frogak baldintzatzen duen etapa da Batxilergoa: ikasgaietan banatua, curriculum eduki amaigabeak, proiektuak metodologia aktiboaren bidez gauzatzeko denbora falta... Hala ere, LOMLOE legeak ekarritako berrikuntzetako batek eman zizun sortu genuen proiektua aurrera eramateko aukera: *Komunitaterako proiektuak* ikasgaia curriculumik ez duen ikasgaia izanik, nitxo ezin hobea zen iraunkortasunerako hainbat diziplinatan batera txertatzeko. Diziplinartekotasunak irakaslearen artean sortzen duen mesfidantza gaitzetea ahalbidetzen du ikasgai horrek, berezko ikasgaiei dagoen curriculum lantzeko denbora kendu gabe eta ikasgaien arabera antolatutako dakarren oztipoa gaitzetea.

Arestian aipatu bezala, prestakuntza prozesua irakasleak ahaldu-



Tolosako Orixe BHIko Batxilergoko irakasleak tailerretako batean parte hartzen.

tzeko tresna gisa planteatu genuen. Parte-hartzaileotzat, konfiantza da irakasleen garapen profesionalean eragiten duen faktore garrantzitsuetako bat.

Halako proiektuen bidez, ondorioztatu genuen ezagutza eraikitze-ko eta ikasitako teoria praktikara eramateko gakoa zela gure artean konfiantza eskuratzeko trebatzea. Hau da, egindako prestakuntza prozesuak halako proiektuak diseinatzeko eta egiteko ahaldundu gintuen. Eginahal horretan, prestakuntza lantegiek izan zuten balioa azpimarratu nahiko nuke. Esperientzia praktikotik abiatuta, ikaskuntza eraikitzea ahalbidetu zuten prestakuntzarako eta garapen pertsonalerako espazio ezin hobekak izan baitziren lantegiak. Hala ere, denbora faltagatik, ezin izan zen prozesuan nahi beste sakondu, batez ere diziplinartekotasunari zegokionez.

#### Ondorio nagusiak

Bukatze aldera, iraunkortasunerako hezkuntza testuinguru zehatz batean sustatzeko proposamen faltak bultzatuta bost hilabetez egin zen ikerketa ekintza parte-hartzailearen bi ondorio nagusiak aipatu nahiko nituzke: lehena, lankidetzan

diseinatutako unitate didaktikoaren balioa nabarmentzea; eta bigarrena, prozesuak berak parte-hartzaileen-gan izan duen eragina.

Diseinatu genuen unitate didaktikoaren balioari dagokionez, iraunkortasunari buruzko prestakuntza plan baten oinarria finkatu dela ondorioztatzen da. Izan ere, proiektu bat sortu genuen, zeinean integratu ziren iraunkortasuna lortzeko funtsezkoak diren ikaskuntzak. Azpimarratzekoa da, bestalde, sorkuntza lanaren diseinuan, hainbat diziplinako irakasleok lankidetzan aritu ginela, bertatik bertara, dagoeneko egiten genuenaren gainean hausnartuz eta hori eraldatuz.

Prozesuak berak parte-hartzaileen-gan izan duen eraginari dagokionez, esan daiteke irakasleen artean ezagutza eraikitzea eta ahalduntze kolektiboa bultzatzea lortu zela. Izan ere, prozesuan gauzatu ziren lantegien bidez, hainbat diziplinako irakasleen prestakuntzan eta garapen profesionalean eragin zen. Modu horretan, hezkuntza gogoe-tako praktikei zentzu kritikoagoa emateko urratsa egin zen, iraunkortasunerako hezkuntzaren aldeko eraldaketa erdietsiz.

Batek daki 2035ean zer kobalto behar izango dugun; batek daki

politika kontinuisten kapitalismo berdeari noiz esango diogun planto; batek daki oligopolio energetikoen aurrean trantsizio ekosoziala komunitateetan antolatu ahal izango dugun... Baina jakin badakit, gaurtik hasita iraunkortasunerako hezkuntzaren aldeko apustu garbirik egin ezean trantsizio energetikoa modu duinean egiteko kultura iraunkorren hedapena atzeratzen ariko garela. Bitartean, jarraitu dezagun hezkuntzatik proiektu eraldatzaile eta komunitarioak bertatik bertara sustatzen eta eraikitzen!

**Gaurtik hasita  
iraunkortasunaren  
hezkuntzaren aldeko  
apustu garbirik egin  
ezean, trantsizio  
energetikoa modu  
duinean egiteko  
kultura iraunkorren  
hedapena atzeratzen  
ariko gara.**

# EKARPENAK III

HEZKUNTZA AKORDIOA

## Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak Hezkuntza Lege proiektua onartu du eta Legebiltzarrean da

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak Hezkuntza Lege proiektu berria onartu ondoren, Legebiltzarrera bidali du eta hango eztabaida prozesua abiatuko da orain. Legea onartu aurreko azken fasea izango da eta testuari emendakinak eta ekarpenak egiteko baliatuko dute alderdi politikoei eta hezkuntza eragileek.

**A**pirilaren 25eko Gobernu Kontseiluaren bileran onartu zuen Eusko Jaurlaritzak Arabarako, Bizkairako eta Gipuzkoarako Hezkuntza Lege proiektu berria. Jokin Bildarratz Hezkuntza sailburuak eta Bingen Zupiria Eusko Jaurlaritzako bozeramaile eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak eman zuten prentsurrekoan, Bildarratz sailburuak “prozesu mamitsu eta trinko bati” amaiera eman zaiola adierazi zuen, eta lege proiektua garatzen eta osatzen modu aktiboan parte hartu duten alderdi politikoei, hezkuntza eragileei, sindikatuari, norbanakoei, herritarrei eta Eusko Legebiltzarrari esker ona helarazi zien. “2022ko apirilaren 7an Eusko Legebiltzarrak erakutsi zigun desberdintasun guztien gainetik beharrezkoa dela batzea gure hezkuntza hobetzeko”, azpimarratu zuen, egun horretan onartutako Hezkuntza Akordioari erreferentzia eginez eta mugarriz garrantzitsua izan zela

baieztatuz, Legebiltzarraren % 90ak baino gehiagok eman baitzion baietza akordioari eta datozen urteetan garatu beharreko 43 neurriei.

Lege proiektu berri honek Hezkuntza Akordioaren edukia eta espiritua errespetatzen dituela azpimarratu zuen eta helburua “Euskadiko ikasleei ahalik eta hezkuntzarik onena eskaintzea” da: “Kalitatezkoa, integratzailea, aukera berdintasuna eskaintzen duena, euskalduna, eskola publikoak funtsezko zutabe duena eta berrikuntzaren aldeko apustu sendoa egiten duena”.

### Jasotako hainbat gako

Irailean aurkeztutako lehen zirriborroak kritika asko jaso zituen eta Hezkuntza Sailak hezkuntza eragileen aldetik ekarpenak eta proposamenak jaso zituen. Lege proiektuan aldaketa batzuk onartu dira eta beste batzuk ez.

**Hizkuntzen** aferari dagokionez, esate baterako, murgiltze eredu ez

da aipatzen eta A, B eta D ereduak ere ez. “Euskal Hezkuntza Sistema eleaniztuna da, euskararen inguruan artikulatua, eta bi hizkuntza ofizial eta atzerriko hizkuntza bat, gutxienez, ditu hezurdukatat”.

Ikasleek hizkuntza horietan lortu beharreko maila zehazten da: “Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitzean, Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B2 maila lortu behar da bi hizkuntza ofizialetan, eta gutxienez atzerriko hizkuntza batean B1 maila”. Hizkuntzaren ezagutzaz gain, eta euskararen erabilera indartzeko xedez, “arreta berezia eskainiko zaio euskal kultura ezagutzeari”, gehitu dute testu berrian.

Helburuak lortzen direla bermatzeko, “ikasleen ardura beren gain duten irakasle-taldeek ebaluatuko dute gutxienezko helburu horiek betetzen direla” eta horretarako, “hezkuntza arloko eskumena duen sailak beharrezkoak diren ebaluazio-tresnak arautuko ditu, irakasle-



Bingen Zupiria Eusko Jaurlaritzako bozeramaile eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua eta Jokin Bildarratz Hezkuntza sailburua lege proiektua aurkezten apirilaren 25eko prentsaurrekoan.

taldeek berek lortu diren emaitzak balora ditzaten”.

Xedeak lortzeko, ikastetxeek derigorrezkoa izango dute hezkuntza proiektuaren osagai gisa hizkuntza proiektu propio bat egitea. Eta hori, euskal hezkuntza sistema osatzen duten ikastetxe guztiek egin behar dute, hau da, Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoa osatuko duten guztiek.

Halaber, lege proiektu berrian, aurreko zirriborroan ez bezala, **Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoaren** parte izateko ikastetxe guztiek oinarri gisa printzipio hauek izango dituztela zehazten da: “Diskriminaziorik eza; gardentasuna; irabazi-asmorik eza; ikasle zaugarriari eta ikasleen aniztasunari arreta ematea; hezkuntza formalean inplikaturako sektoreen parte-hartze demokratikoa; segregazioaren aurkako konpromisoa eta inklusioaren, ekitatearen eta aukera-berdintasunaren aldeko konpromisoa; Eusko Jaurlaritzak ezarritako curriculum-

rekiko eta ebaluazio-mekanismoe-kiko begirunea; euskara hezkuntza sistemaren barruan lehenestea, hezkuntza-jardueran zein harreman profesionalean, baita ikasleen eta irakasleen arteko harreman formal eta ez-formaletan ere, eta ezarritako hezkuntza-helburuak betetzea; sexu- eta genero-askatasuna eta laiktasuna bermatzea. Era berean, hezkuntza proiektuaren lidergo demokratikoa bermatuko duen ikastetxeen gobernantza eta tokiko hezkuntza proiektuetan parte hartzea sustatuko da, eta baita langileak kontratatzeko prozesu gardena ere. Ikastetxe horiek doako eta kalitatezko irakaskuntza bermatuko dute hala dagokion mailetan”.

**Segregazioari** aurre egiteko proposamenen artean 28. artikulua gehiago garatu da, hainbat puntu gehituz, besteak beste, ikasle zaugarrientzat plazak gordetzea, zaugarritasun indizea jartzea eta dagokion administrazioak diruz laguntzea.

“Uste dugu nahikoa oinarri badagoela eztabaida parlamentarioari ekiteko eta legegintzaldi honetan lege on batera iristeko”

EH Bildu

“Kezka dugu egungo hizkuntza eredia gainditzeko bidea ireki dezakeelako”

PSE

“Osoko zuzenketa jarriko diogu denak berdin jarraitzearen aldeko apustua delako”

Elkarrekin-Podemos

“Hezkuntzako Euskal Zerbitzu Publikoa sare publikoa eta itundua parekatzen dituen erakunde gisa izendatzen hasi da”

Steilas

“Egungo sistema betiketza du helburu”

ELA

“Legea hobetzeko, eragiten jarraitu nahi dugu”

LAB

“Testuak euskara gehiago behar du eta zehaztasun gehiago ere bai”

Kontseilua

# AHALDUNTZE ESKOLA

INTERNETEN ETA GAILU DIGITALEN ERABILERA KRITIKOA

## Arriskuak saihesteko giltza

EHU Euskal Herriko Unibertsitateko Unesco Katedrak DBHko ikasleei zuzendutako eta sarbide libreko esku-hartze saio batzuk diseinatu ditu Interneten eta gailu digitalen erabilera arduratsua eta kritikoa lantzeko helburuz. Haurrek eta nerabeek izan ditzateken arriskuak saihestea da helburu nagusia.

**N**ere Amenabar EHuko irakaslea eta ikerlaria da Donostiako Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean. Azken urteotan IKTen gaia jorratzen dihardu, zehazki Interneten erabilera zuzenaren eta arduratsuaren gaineko ikerketan murgilduta dago bere taldea. Orain Internet eta gailu digitalak modu kritikoa eta arduratsuan erabiltzeko lagungarria izango den materiala osatu, eta denon eskura jarri dute.

### Interneten eta gailu digitalen gehiegizko erabilerak edo erabilera ez egokiak osasunarentzat arriskuak ditu. Zein dira arrisku horiek?

Adinaren arabera arriskuak askotarikoak izan daitezke eta guk era honetan sailkatu ditugu:

1. Edukiari dagozkionak: haurrek eta nerabeek jasotzen duten informazioarekin zerikusia du. Informazio hori testua izan daiteke, baina baita bideoa, musika, bideo jolasak, bideoklipak, pelikulak, argazkiak eta abar.

2. Kontaktuari dagozkionak: bereziki adin txikikoen eta helduen artean Interneten sortzen diren harremanei buruz ari gara. Harreman horiek jokabide bortitzetan, sexua-

letan eta ideologiaren manipulazioan oinarritzen dira maiz. Horien artean *sexting*-a edota *grooming*-a dira ezagunenak.

3. Jokabideari dagozkionak: beste pertsoneri hainbat informazioaren argitalpenaren bidez kaltea eragiteko ekintzak izaten dira. Ziberjazarpena izango litzateke ezagunena.

4. Finantzari dagozkionak: iruzur ekonomikoak.

Arrisku horiekin bizitzeak ondorioak ditu pertsonen osasun mentalean: antsietatea, depresioa, autoestimua baxua, gizarte-trebetasunetikiko segurtasunik eza, mendekotasun

emozionala, ingurunera egokitzeko arazoak, suminkortasuna, judizio-gaitasuna murriztea, eguneroko arazoak eta disoziazio eta izu-egoeak izan daitezke.

### Interneten eta gailu digitalen erabilera kritikoa garrantzia azpimarratzen duzue. Zergatik da hain garrantzitsua Internet eta gailu digitalak modu kritikoa erabiltzea?

Gailu horiek gure eguneroko bizitzan oso txertatuak daude eta horren aurrean ezinbestekoa da ikuspegi kritikoa izatea eta horreta-



rako lanketa egitea. Lanketa arriskuak gertatu aurretik egin behar da, prebentzioak berebiziko garrantzia du.

### Zein izango lirateke erabilera kritiko horren ezaugarriak edo oinarriak?

Internet modu arduratsuan eta kritikoa erabiltzeko hiru eragileren arteko ekintza koordinatua beharrezkoa da: adingabeak, familiak eta eskola. Koordinaziorik ez bada, esku-hartzeak ez du guztiz funtzionatuko. Hori dela eta, diseinatu ditugun esku-hartze saioak eskolan lantzeko dira, baina baita familian lantzeko ere.

### Pentsamendu kritikoa garatzea da helburu nagusia, ezta?

Erabat. Bizitzako beste zenbait arlotan gertatzen den moduan, gailu horiekin ere kritikoak izaten ikasi behar dugu. Ez ditugu baztertu behar, eta erabilpen osasuntsua egin daitekeela iruditzen zaigu, baina horretarako ikuspegi kritikoa eta pentsamendu kritikoa behar ditugu.

### Gailuen erabilera proaktiboaren ideia sustatu nahi duzue, besteak beste.

Hori da, era horretan arriskuak txikituko edo desagertuko baitira. Eta, jakina, hori da gure helburu nagusia. Sortu dugun esku-hartze materialak erabilera arduratsua eta kritikoa bultzatzeaz gain, Interneten arriskuen pertzepzio handiagoa lortu nahi du. Ikerketaren emaitzek erakutsi digute nerabeek arriskua-ren pertzepzio txikia dutela eta pertzepzio hori handitzen badugu, erabilera arduratsua lortuko dugu.

### Sortu duzuen materialak arrisku horiek ekiditeko tresnak eskaini nahi al ditu?

Bai. DBHko ikasleen lagin handi bat bildu dugu ikerketa batean eta datu horiek aztertu eta landu ondoren diseinatu ditugu saioak. Datu horiez gain, DigComp (Gaitasun Digitalaren Europako Markoa) eta Unescoren Komunikabideen Informazio-Alfabetizazioa hartu ditugu kontuan. DBHrako pentsa-



Esku-hartze saio bateko hezitzaileentzako fitxa.

tutako materiala da, garai horretan gailu horien erabilera nabarmen hazten delako, baina azken urteetan ikusten ari gara pertsona gero eta gazteagoak ari direla barnatzen mundu horretan. Horregatik uste dugu materialak LHko azken zikloan ere erabilgarriak izan daitezkeela.

**12-17 urte bitarteko ikasleei zuzendutako materiala da. Nolako da?** 50 minutu inguruko 13 saio diseinatu ditugu. Adinarena erreferentzia bat besterik ez da, eta hezitzaileak erabakiko du norentzat izan daitekeen. Hainbat jarduera proposatzen ditugu eta hezitzaileei ere hainbat gomendio eskaintzen dizkiegu. Saio bakoitzaren amaieran ebaluaketarako bi atal eskaintzen dira, alde batetik saioa bera ebaluatzeko, eta bestetik hausnarketara bultzatu nahi

duten galdera batzuk proposatzen dira saioan zer ikasi duten aztertzeko. Gure web orrian saio ireki bat dugu eta beste guztiak ere doan deskargatu daitezke.

### Galdera adierazgarri batekin hasten da, adibidez, 1. saioa: "Teknologia erabiltzen dut? Ala teknologiak erabiltzen nau?"

Bai hori da. Saio hau erabilpen ohituren dimentsioari dagokio. Guretzat garrantzitsua zen horrelako galdera batekin hastea: ea gu garen teknologia kontrolatzen dugunak edo teknologiak kontrolatzen ote gaituen gu.

Esku-hartze saioak ondorengo web-orrian daude eskuragarri: <https://www.ehu.eus/eu/web/catedra-comunicacion-valores/internet-eta-gailu-digitalen-erabilera-arduratsua-eta-kritikoa/hizkuntza>.

# GALDEIDAZU

## ZER DA OPTOMETRIA ETA NOLA LAGUNDU DEZAKE ESKOLAN?

**O**ptometria ikusmena aztertzen duen zientzia da. Ikusmena trebetasunen multzo bat da; ez dira gauza bera ikusmena eta bista. Bista begietan dago, eta ikusmena informazioa prozesatzea da, pertsonak ikusten duena uler dezan. Informazioa behar bezala prozesatzen ez bada, pertsonak ez du espero bezala erantzungo: adibidez, pertsona batek objektu batekiko distantzia ondo kalkulatzeko ez badu, ez dio objektu horri ondo eutsiko. Ariketa hori burmuinak egiten du. Ikusmen zorrotasuna da bista, eta ikusmena begiek jasotzen duten informazioa prozesatzeko lana da, horren arabera jokatu ahal izateko. Optometria ikusmenaren zaintza aztertzen duen zientzia da.

Optometristok ikusmen trebetasunak ebaluatzen ditugu: ikusmen zorrotasuna, fokuratzea, konbergentzia... Ikusmen trebetasun asko daude, eta, horien artean, adibidez, guk ebaluatzen dugun ikusmen trebetasunetako bat begi mugimendua dira, begi mugimenduek eragin handia baitute irakurketa prozesuan. Adibidez, haur asko galdu egiten dira irakurtzean: lerroak saltatzen dituztelako, arbeletik ezin dutelako ondo kopiatu; lerroek dantza egiten dioetela sentitzen dute, letrek dantza egiten dietela; eta hori begi mugimendu onak ez dituztelako da. Begien mugimendua, ikusmen trebetasun gisa, entrenatu



**TERESA OLABARRIA**  
Optometrista



eta hobetu egiten da; orduan, haurrek, horretan trebatuz, irakurketa hobetzen dute. Optometristaren kontsultara etortzen diren umeen % 100ek esaten dute ez dutela ondo irakurtzen. Horien artean, badi-ra gaitasun handiko haurrak ere, kontu honek ez baitauka zerikusirik burmuinarekin; garuna ondo dago. Ikusmen trebetasunak landu behar dira, eta, entrenamenduen bidez modu egokian hobetuz, eskolako errendimendua hobetzen da.

### **Prozesu akademikoan eragina izan dezaketen ikusmen arazo ohikoenak**

Jasotzen dugun informazioaren % 75 bistaren bitartez jasotzen dugu. Ikusmena zenbat eta hobea izan, orduan eta hobea izango da gure garunak lortzen duen informazioa. Eta hori oso garrantzitsua da haurrengan; izan ere, bizitzako lehen urteetan egiten den ikaskuntza oso garrantzitsua da, horren gainean finkatzen baitira ondorengo ezagutzak, eta ikaskuntza prozesu horretan ikusmenak berebiziko garrantzia du. Ikaskuntza prozesuan, berebiziko garrantzia du ikusmenak; horregatik, garrantzitsua litza-teke irakasleek trebetasun hauetan ere arreta jartzea.

Ikusmen-koordinazio arazoak, anblipia edo estrabismo-arazoak dituzten haurrek irakurtzeko arazoak izaten dituzte, eta horrek zailtasunak eragin ohi ditu ezagu-



## Ikusmen terapiak garunaren plastikotasuna baliatzen du edozein adinetako pertsonen ikusmen arazoak hobetzeko.

tzak barneratzean; hainbesteraingoak, ezen batzuetan haur batek eskola porrota izateraino eraman dezaketen ikusmen arazoak izan ditzakeen. Ikusmen arazoak goiz hautemateak haurren bizi kalitatea ez ezik ikasketa prozesua ere hobetzen du, ikusmen-terapiak eragin baitezake, haurrak irakurketaz goza dezan eta irakurritakoa zailtasunik gabe gogoratzeko gai izan dadin.

Ikusmen arazoak dituzten haur asko daude gaur egun. Arazo nagusietako bat fokatzeko arazoa da, pantailen –mugikorren eta tableten– erabilerak eragindako arazoa, hain zuzen ere. Pantaila horiek baliagarriak badira ere, garrantzitsua da jakitea denbora luzean erabiltzeak zer-nolako kalteak eragiten dizkion besteak beste ikusmenari. Beti esaten dugu aurrean dugun pantaila zenbat eta handiagoa izan orduan eta hobe dela ikusmenerako. Izan ere, pantaila txikiek eta hurbil jartzen diren pantailek egokitzapen arazoak ekarri ohi dizkiote ikus-

menari, eta miopia eragiten dute. Azkenaldian, izugarri handitzen ari da miopeen kopurua. Optikarien Elkargoak dio biztanleriaren erdia miopea izango dela 2050ean. Beraz, haurrak zenbat eta denbora gehiago egon pantailekin eta ordenagailuekin, orduan eta miope gehiago egongo dira.

Miopiaz gain, optometria mailan gehien ikusten ditugun arazoak begi mugimenduei dagozkienak dira. Begi mugimenduen arazoan ondorioz, haurrak galdu egiten dira irakurtzen ari direnean. Ikusmen terapiari esker, hobetu egin daiteke arazo hori. Horrez gain, saiatzen gara haurrei eta helduei ikusmen higienerari buruzko aholkuak ematen. Ikastetxeetan ere azaltzen dugu nola eseri behar duten hurrek, paperera nola hurbildu behar duten, eta ergonomiako eta argiztapeneko aholkuak ematen dizkiegu.

### Zer da ikusmen terapia

Ikusmen terapia edo terapia bisuala

ikusmen trebetasunak entrenatzea da, hala nola fokatzea, konbergentzia eta begien mugimenduak. Guk gorputzarekin, sistema motorrekin edo entzumen sistemarekin batera lantzen dugu ikusmena, trebetasun guztiek hobera egin dezaten. Tratamenduak pertsonalizatua izan behar du, arazo bakoitzari dagozkion ikusmen ariketak ezarri behar baitzaizkio. Ariketa horien helburua garuna trebatzea edo entrenatzea izango da, haurrak ikusmen hobea izan dezan. Garunaren neuroplastikotasunean oinarritzen da tratamendu optometriska, ikerketek erakusten baitute garuna gai dela bizitza osoan zehar egokitzeko eta garatzeko. Gaitasun horri esker, garuna edozein adinetan entrena daiteke. Ikusmen terapiak garunaren plastikotasuna baliatzen du edozein adinetako pertsonen ikusmen arazoak hobetzeko.

Ikusmen terapiak garuna entrenatzea ahalbidetzen du, ikusmen sistema eraginkorragoa izan dadin. Hau da, hobeto eta azkarrago ikus dezakegu terapiari esker. Hori lortzeko, ikusmen emaitzak hobetzera bideratutako ariketa batzuk prestatu behar ditu profesionalak. Ariketa horiek astero egiten dira kontsultan, eta etxean egunero egin behar dira.

Begi alferra eta estrabismoa duten hurrekin ere erabiltzen dugu ikusmen-terapia. Begi alferra duten haurren kasuan, hobekuntzaren mekanikan ez da aldaketarik egin urte askoan, eta haurrei, kasu askotan, adabakia jartzen zaie oraindik ere.

## Haurrak ikasteko tresna egokiak ez baditu, haurrak ezin izango du ikasi. Baina haurrak zailtasun hori duela ez badaki irakasleak, ezin dio lagundu

Gisa horretako terapia pasibo baten ordeztan, komenigarriago iruditzen zaigu terapia aktiboago bat erabiltzea, ariketen bidez begi alferraren dinamika hobetzea eta, azken aukerara gisa, adabakia erabiltzea.

Gero, beste arazo batzuk ere badaude, hala nola daltonismoa, biztanleen % 5i eragiten diona, gizonezkoei ia beti; herentziatzkoa da, baina normalean ez du eragin akademikorik izaten. Ondo dago jakitea haurra daltonikoa dela, irakasleak arazoa ezagutzen ez badu, haurrarentzat zailak izan daitezkeen egoerak biziarazi baitiezazkioke. Normalean, daltoniko bat detektatu ohi da gela bakoitzean. Ez du sendabiderik.

### **Nola lagundu dezakeen optometriak maila pertsonalean eta akademikoan**

Ikasteko arazoen haurren autoestimuan —irakurketan galtzen direlako, adibidez edo informazioa behar bezala prozesatzen ez dutelako— eragin izaten dute. Haurra irakurketan eta ikasketan kontzentratu ezin denez, zaila gertatzen zaio berez eman dezakeen guztia ematea eta bere gaitasunak ikusaraztea; horrek eragin zuzena dauka autoestimuan. Egokitze eta fokatzeko arazoen ikasketetan eragiten dute, eta baita maila pertsonalean ere, ez baitira erraz diagnostikatzen.

### **Ikusmen gaitasunekin lotutako arazoei aurrea hartzen**

Guk detekzioan eta diagnostikoan jartzen dugu indarra, baina faktore askok eragiten dute: pantailen

erabilerak, argiztapenak, jarrerak, ergonomiak... Haurraren mugimendu autonomoak zerikusia dauka honetan guztian. Garapen motorrak zerikusi handia du ikusmen trebetasunekin, eta adibidez zehaztutara etorrira, letrak egiterakoan, esate baterako, eragina dauka haurra txikitatik bere gaitasunen arabera mugitu izanak. Garapen motor on batek ikusmen egokiarekin eta ikusmenaren garapen egokiarekin zerikusia du. Katuka ibiltzeak, arrastaka ibiltzeak eta mugimendu autonomoaren protokolo osoa betetzeak mesede egiten diote ikusmen gaitasunari. Haur batzuek garapen psikomotorrean zailtasunak badituzte, esku hartu beharko litzateke, baita ikusmen gaitasunen izenean ere. Lehenbailehen ibil daitezkeen prozesuak aurreratu nahi izateak edo kontrakoak, hau da, ukitzeko eta mugitzeko aukerarik gabe hamakan geldidun gehiegi edukitzeak, ez die mesederik egiten ikusmen gaitasunari. Esperientziak erakutsi digu ez dugula etaparik utzi behar bizi gabe, guztiak bizi behar ditugu.

Optometristaren kontsultan, haurrek dituzten erreflexu primitiboak ere lantzen dira, eta erreflexu horietako askok eragina daukate ikaskuntza prozesuetan. Erreflexu primitiboak ondo integratuta ez badaude, erantzun aberranteak eta heldugabeak ematen dituzte pertsona horiek. Adibidez, oratzeko erreflexuaren kasuan, haurrari eskuetatik

heltzen zaio, eta goratu egiten da; oratzeko erreflexua garaiz integratu ez bada, haurrak indar handiz helduko dio arkatzari 6 urterekin. Beste adibide bat: zurrupatzeko erreflexua beharrezkoa da jaiotzean, baina haurrak ez badu zurrupatzeko erreflexua bere garaian integratu —biberoia garaiz kendu ez zaien haurren kasuan, adibidez—, ezpainei hozka egiteko joera izaten dute, eta ahoskatzeko eta bokalizatzeko arazoak izaten dituzte. Horretaz arduratzen dira logopedak. Pureen eta lastotxoeren eraginez haurrek murtxikatzen ez ikasteak arazoak sortu ditzake, eta horrek eragina izango du gero hizkuntzan. Beste erreflexu bat Galant erreflexua da, bizkarrezurrekoa; aulkian geldirik egon ezin diren haur askok Galant erreflexua izan dezakete.

Garrantzitsua da ikusmen zorroztasuna, begi mugimenduak, egokitzapena, konbergentzia edota lateralitatea aztertzea, arazo horietako askok hobera egin baitezakete ikusmen terapiarekin entrenatuta. Detekzioa da lehen urratsa, eta gero, beharrezkoa den kasuetan, bideratu egin behar da. Izan ere, haurrak ikasteko tresna egokiak ez baditu, haurrak ezin izango du ikasi. Tresna horiek sortu daitezke, eta entrena eta garatu daitezke. Baina haurrak zailtasun hori duela ez badaki irakasleak, ezin dio lagundu. Normalean informazio faltagatik diagnostikatu gabe geratzen diren haurrak izaten dira.



# ARGITALPENAK



## ZAINTZAREN HARIAK

Felix Arrieta

### ELKAR

Zaintzaren gaia dakar mahai gainera *Zaintzaren hariak*. Oihal berri baterako bideak ehuntzen izeneko liburuak. Adineko pertsona gehienek zaintza gehiago eskaintzen dute sistema publikoari eskatzen diotena baino. Adinekoen eta pertsona zaurgarrien zaintzaren 360 graduko bidaia egiten da liburuan.



## SORGIN DIBERTIGARRIA

Ricardo Alcántara - Gusti

### KALANDRAKA-PAMIELA

Mari sorgina gauez jolasean aritzen da eta egunez lo egiten du. Gaztelu sorginduan bizi da eta bere erratz hegalariairean gainean egiten du hegan, hamaika sorginkeria eginez. Horrela aritzen da ahots batek bere egitekoa eteten duen arte, etxeko lanak egin behar ditu eta. Norena ote da ahots hori?



## EUSKALDUNAK ERRO ETA ITXAROPEN

Joseba Aurkenerena Barandiaran

### DAKIT

Euskal Herria da liburuaren erro nagusia. Hainbat pertsonaren bizitzaren eta ibilbidearen kontakizuna eginez, eta hainbat festari eta ospakizuni buruzko informazioa jasota, Euskal Herriko historian barrena egin du ibilbidea Aurkenerenak. Amaieran hiztegi txiki bat ere jaso du.




## ERREPRESIOA ESTATU FRANKISTA BERRIAREN ZIMENDU (1936-1948)

Pako Sodupe Elortza

### UEU

1936ko kolpe militarri eta gerra zibilari buruzko ideia orokorrak biltzen ditu liburuak. Hego Euskal Herriko lau lurraldeetan egoera ezberdinak bizi izan ziren eta errepresioa ere ezberdina izan zen. Garai ankerrean ardazturiko ikerlana eman du argitara Sodupek.



## HOLAXE BIZI DA XOLA

Bernardo Atxaga - Mikel Valverde

### EREIN

Xola txakurraren bost abenturen bilduma da hau. Euskarazko haur literaturako narrazio klasikoak dira, 1995etik aurrera argitaratu zirenak (*Xolak badu lehioen berri*, *Xola eta basurdeak*, *Xola eta Angelito*, *Xola eta Ameriketako izeba*, *Xola eta lapurra*), eta orain berreskuratu dituzte.



## MARI GONAGORRI ETA HAMAZAZPI BERRI

Yolanda Arrieta - Enrique Morente

### DENON ARTEAN

Saguak ohar bat jarri du herriko plazan esanez ezin duela lanean jarraitu. Ez dakite noiz arte. Mimi eta Loa bikiak dira, zazpi urte dituzte eta zazpi hortz kolokan. Zazpi hortz kolokan eta arazo potolo bat bihotzean: nori eskatuko diote oparia hortzak erortzen direnean?

# PROPOSAMENA

## Gure Sustraiak baserri eskola

### Natura, guztiontzako irisgarri

Nafarroako Olloibar bailaran, Iruñetik 20 kilometrora, Ollo herriko Gure Sustraiak baserri eskolak jasangarritasuna du ardatz eta ingurumen hezkuntza, garapenerako hezkuntza eta ekonomia soziala uztartzen ditu haurrei eskaintzen dizkien tailerretan, ibilaldietan eta jardueretan. Pertsona guztiak naturara gerturatzeko, sentsibilizazioa eta irisgarritasuna zaintzen dute hango hezitzaileek.

**N**aturarekin kontaktua eskaintzen du Gure Sustraiak egitasmoak; kontaktua, konexioa erdiesteko. “Geure burua naturako elementu bat gehiago bezala ikusteko —azaldu dio Gorka Cubelos hezitzaileak Gure Sustraiak aterpetxe eta baserri eskolaren filosofia **Hik Hasiri**—. Gure helburua naturarekin konektatzea da. Ez soilik hemen ditugun animaliekin edo baratzeko eta basoko elementuekin, baita geure buruarekin ere, geure burua ere naturaren parte sentitzea nahi dugu Gure Sustraiaken”.

Pertsona guztien eskura jarri nahi dituzte naturaren onurak. Hori izan da sorreratik Gure Sustraiaken zigiluetako bat: irisgarritasuna eta behar bereziekiko sentiberatasuna. Eskaintzen dituzten tailerretan eta zerbitzuetan irisgarritasuna zaintzen dute, eta behar bereziak dituzten ikasleei egokitzen dizkiete azalpenak. Lekuak eta espazioak erraztaileak izateaz gain, hezitzaileak formaturik eta sentsibilizaturik daude. Baserria bera mugikortasun



mugatua dutenentzako erdi-egokিতua dago. “Hemen espazio barneratzaileak sortzen saiatzen gara eta beste errealitate batzuk lantzen eta ikusarazten”. Gaur egun adimen urritasuna duten 30 pertsona gazte bizi dira Olloko eremuan dituzten bi pisu tutelatuetan eta bertan bizi eta lan egiten dute, baserrian, bisitetan edo bizpahiru egun pasatzera datozen haurrekin elkarbiziz.

Jasangarritasuna dago 2002an abiatu zen proiektu pedagogiko honen ardatzean, “jasangarritasuna ingurumenari dagokionez; jasangarritasuna gizarteari begira garapenerako hezkuntzan; eta, hirugarrenik, ekonomia sozialari begira. Ekosistema batean gaude eta gu ere, pertsonak, ekosistema horren parte gara. Geure burua, askotan, piramidearen goiko puntan ikusi izan dugu



Ollo herriko Gure Sustraiak baserri eskolaren aterpetxea.

pertsonok, eta horrela bizitzearen ondorioak oso larriak dira naturarentzat, larrialdi klimatikoak, baliabideen eskasiak eta orain lehorreak erakusten diguten moduan. Hona etortzen diren haurrak ezin ditugu aldaketa klimatikoaren errudun bilakatu, baizik eta kontrakoa, egoera horri buelta emateko protagonista izan daitezkeela sentiarazi nahi diegu: naturatik dena jasotzen dugu, eta horretaz ohartzen bagara, gizarte aldaketa bultza dezakegu”.

### Ekintza guztietan hiru ardatz

Hiru ardatzetan oinarritutako eskaintza pedagogikoa egiten die Gure Sustraiak baserri eskolak ikastetxeei, goiz baterako, egun baterako, bi egunetarako, hiru egunetarako, astebururako nahiz aste osokorako: ingurumen hezkuntzan, garapenerako hezkuntzan eta ekonomia sozialean oinarritutako programa pedagogikoak. Tailerrak eta ibilbideak tartekatzen ditu eskaintzak, ikastetxe bakoitzak, bere beharren arabera, osa dezan egonaldia. Besteak beste, ogi tailerra, ukenduen tailerra, kandelena, habia kutxena, nendo-dangoen tailerra, energia lantzekoak edota baso bainuak eskaintzen dituzte.

Eskaintza guztiek hiru ardatzak konbinatzen dituzte eta edukietan baino gehiago bizipenetan oinarri-

tzen dira. “Programa horien helburua gure bisitariei ingurunearekiko jasangarritasun eta errespetuzko baliok txertatzea da, hala nola, haien eguneroko bizitzan alda ditzaketen ohiturak erakustea. Jarduera guztiek osagai pedagogikoa eta ludikoa dute eta nahieran konbinatzen dira interpretazio ibilalditxoak eta ibilbideak, tailerrak eta talde dinamikak”.

Metodologia barneratzailearen bidez, zeharka kontzeptu eta eduki ugari lantzen dituzte baserriko hezitzaileek haurrekin: garapenerako hezkuntza, bizikidetzaren positiboa, elkartasuna, inklusioa, errespetua, kulturartekotasuna, tolerantzia, eta abar. “Modu honetan gure inguru hurbilenarekin eta globalarekin interakzio bat lantzen dugu, jasangarritasunaren alderdi soziala, ekonomikoa eta ingurunearena ezagutuz”.

Oroz gain, Gure Sustraiak abarastasan handiena bertako bizitza da. Astoak, ardiak, zaldiak, ahuntzak, zerriak, untxiak eta hegaztiak bizi diren etxaldea haurrei zabalik dago eta horrez gain, aterpetxea, baratzea, negutegia, animalien bazkalekuak, belardiak eta beste aukera ugari eskaintzen dituen ingurune paregabe dago aterpetxea. Harizti aberats bat du ondoan, Artetako iturburutik gertu dago eta gatzaga bat eskura duenez, ibilbide ugaritarako abiapuntua da Gure Sustraiak.



### Gure Sustraiak

Astiturri ingurunea  
31172 Ollo (Nafarroa)  
[www.granjaescuelaguresustraiak.com](http://www.granjaescuelaguresustraiak.com)  
educacion@  
granjaescuelaguresustraiak.com

**Hezkuntza programa:** Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzarako egokitua, baita behar berezietako haurrentzako ere.

- Koloretako baserria.
- Munduko baratzeak.
- Basoaren aberastasuna.
- Kontsumo arduratsua.



# ATZEKO ATETIK



## EUSKARA HIZKUNTZA GUTXITUA DA, BAITA GEURE BAITAN ERE

**JONE BARRUETABEÑA BARREÑA**  
DURANGOKO IBAIZABAL IKASTOLAKO  
BATXILERGOKO 2. MAILAKO IKASLEA

**G**azte gehienon hizkuntza harremanak aurreko belaunaldiekin konparatuz desberdinak direla esango nuke, kultura eta gizartea garrantuzko diren heinean harremanak ere moldatu egin direlako. Nire bizipenen arabera, euskara pertsona gutxi hitz egiten dute eta hitz egiten duten gutxi horiek ere gutxi hitz egiten dute. Hizkuntza minorizatua, gutxi aukeratzen dutelako, eta gutxitan aukeratzen dugulako. Horrez gain, erabiltzen dugun euskara oso kutsatua dago. Hau guztia hainbat faktoreen ondorio dela esan daiteke; esaterako, musikaren mundua, gaur egun gehienbat gazteleraz edo ingelesez kontsumitzen dugulako musika. Gainera, ez da soilik hizkuntza bera kutsatzen, euskal kultura ere baztertzen da, beste kultura batzuei garrantzi gehiago emanez.

Beste faktore nabarmen bat sare sozialak dira, gure egunerokotasuna erdarazko edukiekin ikusten dugu, eta euskaraz gertatzen dena

ere, erdaraz gertatzen dela ematen du. Ondorioz, berriz ere gure hizkuntza baztertu eta kutsatu dugu, beste hizkuntzetako esamoldeak edo espresioak gure hizkuntzara ekarriz. Horrek zuzenean eragiten dio hizkuntzari, erabilera jaitsi egiten delako erabat. Euskaraz bizitzeko erabakia hartu dugunok ere, erdaregi gero eta espazio handiagoak ematen dizkiegu.

Aipatu berri dudan moduan, euskaraz hitz egiteko ohitura erabat jaisten doa eta adibide argi eta garbi bat ikastetxeetan ikusten da, non gazteek haien artean hitz egiteko orduan erdaraz hitz egiten duten, gizarte euskaldunaren etorkizuna erabat baldintzatuz. Horrekin esan nahi dudana da, iraganean hitz egiten ziren euskalki edo hizkera ugari desagerrarazi egingo ditugula. Adibide argi bat hika da: nire gurasoen belaunaldian hitz egiten da oraindik, gutxi bada ere, eta belaunaldiz belaunaldi hizkera hori hitz egiten dutenak geroz eta gutxiago dira. Hika desagertzea-

rekin batera berorren kultura eta esamoldeak, tonuak eta doinuak ere desagertu egingo dira.

Duela urte batzuk erronkera ize-neko euskalkia desagertu zen, eta nahiz eta saiakera ugari egin diren hura berpizteko eta berpizteko, ez da lortu. Horrela jarraitzen badugu, gaur egun dauden euskalkien edo herri hizkeren etorkizuna ilun ikusten dut.

Hau guztia esanda, garrantzitsua da argi uztea pertsona bakoitzak bere hautua duela, erabakiak hartzeko askatasuna eta eskubidea, hau da, bakoitzak bere aukera du euskara sustatzeko, euskarazko musika kontsumituz, egunerokoan euskaraz hitz eginez eta abar. Nire kasuan, adibidez, kuadrilakoekin euskaraz hitz egiten dut, denok hartutako erabakia izan da, egunero hartzen dugun erabakia da. Euskaraz mintzatzea. Euskaraz bizitzea. Bizitzako espazio asko erdaratzen ari zaizkigun honetan, euskararen “erresistentzia” izatea erabakitzen dugu.

## 2023-24 IKASTURTEKO ESKAINTZA

### LEHEN HEZKUNTZA ERALDATZEN



**Edukiak:**

Tutore gogoetatsuaren rola, 6-12 adin tarteko haurren ezaugarriak, hezkuntza proiektuaren prozesua, espazioaren antolaketa, ebaluazio hezigarria, pedagogia sistemikoa...

**Koordinatzaile pedagogikoa:**

Aritz Larreta

**Formazio pertsonaleko koordinatzailea:**

Alvaro Beñaran

### JIRAFAREN HIZKUNTZA KOMUNIKAZIO EZ-BORTITZA

**Edukiak:**

Adierazpen zintzoa, entzute enpatikoa, errurik gabeko guneak sortzeko trebetasuna; gatazken kudeaketa; amorraren kudeaketarako trebetasuna; mugak jartzeko trebetasuna; ikasleen autoestimua elikatzeko trebetasuna...

**Formatzailea:**

Nerea Mendizabal



### PSIKOMOTRIZITATE ERLAZIONALA



**Edukiak:**

Gorputzaren bidezko komunikazioak eskaintzen duen errespetuzko entzutea, itzarotea eta laguntzeko trebetasunak eskuratzen hastea; haurren jolas librea behatzea...

**Formatzailea:**

Mapi Urresti

Maitasun handiz, arreta guztiarekin, eta doan

# LEHEN URRATSA



Haurreskolak

**IZEN EMATEA**

**APIRILAREN 24TIK MAIATZAREN 16RA**

[www.haurreskolak.eus](http://www.haurreskolak.eus)

**ELISKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA SAIA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN